ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko martxoaren 15a > Astelehena > VI. urtea > 269. zenbakia > 1,10 euro

www.goiena.net TOKIKOM

"Kooperatibetako langileek ez dute lan gaixotasunen aitorpen eta eskubidea"



**Jesus Uzkudun** CCOOko lan osasuneko arduraduna > 08

**G2a** Bideogintza ikastaroa Oñatin, gaztelekuan > 29

**ARETXABALETA** Giza eskubideen eskultura inauguratu zuten > 04

**GIZARTEA** Aixolan atxilotutako sei gaztetako bost Zumarragako zentrora > 06

**ARRASATE** AEDk okela gisatua dastatuz eman zion hasiera bazkide kanpainari > 11

**MEMORIA HISTORIKOA** > II. OROIMEN EGUNA

# Ekitaldi hunkigarria egin zuten Ahaztuak elkartekoek Aramaion

**EGIAREN BERRI** Asier Agirrek ezinbestekotzat jo zuen Ahaztuaken lana "benetako historiaren berri izateko"

**XUMEA ETA POLITA** Herriko bertsolariek, dantzariek eta abeslariek biribildu zuten Aramaioko ekitaldia

**BORONDATEZ** Zigorgabetasun ereduari herriaren borondatez aurre egin behar zaiola adierazi zuten elkarteko kideek > 04

**ELGETA** > FINALISTA EGUNA

## Mendizale finenak, omenduta

Federazioak antolatuta mendi irteera eta omenaldi jaia egin zuten atzo Elgetan > 21

## Frantziarrek Oñatiko duatloian protagonista izateari utzi diote

Iaz korrikako saioan egin zion ihes Patxi Vilari garaipenak. Galinier eta Capoferri hobeak izan ziren korrika eta bizikletako tartean taldeko lana egin zuten Berakoaren erasoei erantzuteko. Zapatuan Vilak iazko arantza atera ahal izan zuen. Korrika hobeto, eta bizikletan berriro ere erakustaldia emanda lehenengo sailkatu zen Lagunak taldekoa. Emakumetan Itsaso Leundak lehenengoz hartu zuen parte Oñatin; estreinaldi ezin hobea egin zuen. > 34



**40 SEGUNDOKO ALDEA** Patxi Vila Oñatiko plazan zegoen helmuga gurutzatzen, pozarren; 40 segundora iritsi zen Laurent Galinier. JULIO CALLEJA

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02-06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-31
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**HEZKUNTZA** > AURKEZPENA

## Aurkeztu dute 'Izan' proposamena

Zapatuan Baketikek *Izan* proposamena aurkeztu zuen, bizitzarako, elkarbizitzarako eta hezkuntzarako pedagogia etikoa. Ildo beretik, apirilean *Pertsona izaten hezi. Zortzi ikaskuntza* izeneko liburua argitaratuko dute. > 04






**KIROLA** > KIROL ZERBITZUAK

# Udalak eta Goiena Sportek zuten kontratua eten egin dute

**HITZARMENA** Kirol zerbitzuetako langileak eta enpresak lehenengoen lan baldintzak "duintzeko" sinatzear dauden hitzarmenagatik dator erabaki du

**ZERBITZUA BERDIN** Intxaurtxuetako kiroldegiko zerbitzuak berdin funtzionatzen du eta erabiltzaileek ez dute horren harira ezer igarri

**DEBAGOIENA OSOA** Eskoriatzan izan dira akordio horren gaineko ondorioak tratatzen lehenak baina gainerako udaletan ere aztertu beharko dute



Kirol monitoreak eskaintzen duten zerbitzua kontratatuta dute Debagoieneko udal gehienek. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI**> BERGARA

Debagoieneko kirol zerbitzuetan aldaketak omen datoz. Otsailaren 24an egindako osoko bilkuran, Eskoriatzako udalbatzak onartu zuen Goiena Sport kirol zerbitzuen enpresarekin zuen kontratua bertan behera uztea. Erabaki hori sindikatuek eta udal zerbitzu eta ekipamenduen Enpresa Kudeatzaileen Gipuzkoako Elkarteak sinatu duten hitzarmenaren ondotik dator.

Eskoriatzan "trantsizio" egoeran daude orain; izan ere, kontratua etenda badago ere, Intxaurtxuetako kiroldegiko zerbitzuak berdin funtzionatzen du eta erabiltzaileek ez dute horren harira ezer igarri.

Otsaileko osoko bilkura horretan Kirol zinegotzi Ander Agirianok gogorarazi zuen dagoeneko bi urte pasa direla Udalak eta Goiena Sport enpresak kirol zerbitzuak emateko kontratua sinatu zutenetik. Kontratu horrek hasiera batean bi urteko luzera bazuen ere, beste lau urtez luza zitekeen. Agirianoren arabera, "kirol zerbitzuen langileen lan baldintzak hobetzen dituen hitzarmena sinatu dute eta hortaz, Goiena Sportekoek esan digute pleguetako baldintzetan ezin izango dutela aurrera egin". Enpresarekin negoziazio prozesua zabaltzeko asmoa dago, jarraian zerbitzu horren gaineko lehiaketa berria deitzeko.

**HIL AMAIERARAKO ZIRRIBORROA**

Agirianok joan den eguenean jakinarazi zigun aukera desberdinak aztertzen dabiltzala: "Oraindik ere sukaldeko lanetan gabiltza, hil honen bukaerarako edo izango dugu batzordetara eramateko zirriborro bat".

Goiena Sporteko Bixen Calzonek azaldu digu langileek eta enpresek sinatutako hitzarmena behin behinekoa dela eta oraindik hainbat moldaketa egin behar direla horretan. Jakinarazi digu, baina, horrek arlo horretako langileen lan baldintzak "duin bihurtzea" bilatzen duela eta, besteak beste, soldaten igoera eta orduen arautzea ekarriko duela. Calzonek gaineratu du Eskoriatzako nahiz Debagoieneko bestelako herrietako Udalekin "akordio" batetara iristeko asmoa duela enpresak.

Esan bezala, gai hori oraindik Eskoriatzako Udalan baino ez dute tratatu. Bergarako kirol teknikari Unai Asurmendik azaldu digu Eudelek horren gaineko idatzia bidali diela jakinarazten hitzarmena oraindik ez dela behin betiko sinatu eta "aldaketak" egon daitezkeela.

**UDALAK KANPO**

Horren harira, Eudelek jakinarazi du ez dagoela konforme hitzarmen horrekin, langileek eta enpresek lortutako akordioa delako eta Udalak ez dituztelako kontuan hartu.

Asurmendiren esanetan, "teknikariak zain gaude, Eudelek zer esango ote digun eta hitzarmena noiz sartuko ote den indarrean. Gerora, udal bakoitzak ikusi behar du zer kontratu mota dugun".

Kiroldegian bost lan arlo daude: mantenua, administrazioharrera, gerentzia, kirol monitoreak eta garbitzaileak. Bergarako teknikariak adierazi digu bailaran ez dagoela kudeaketa integrala kontratatuta duen enpresarik; hain justu ere, kiroldegi guztiaren ardura eramaten duenik: "Gehienek dugu kudeaketa zuzeneko zati handia eta garbiketa eta kirol monitoreak daude azpikontratatuta. Bergaran, esaterako, monitoreak bakarrik ditugu kontratatuta, Igeriketa Lantzen enpresarekin".

Gainera, kirol zerbitzuak udalei eskaintzen dizkien enpresa bi daude bailaran: Egoitek eta Goiena Sport. Bestalde, Athlon kooperatibak ez ditu kiroldegietako zerbitzu zuzenik ematen; esaterako, Leintzen eskola kirola ematen du.

**ESANAK**

**"Oraindik sukaldeko lanetan gabiltza, hila amaitu aurretik izango dugu batzordeetarako zirriborroa"**

**Ander Agiriano** > Eskoriatzako Kirol zinegotzia

**"Zain gaude, Eudelek zer esango ote digun eta hitzarmena noiz sartuko ote den indarrean"**

**Unai Asurmendi** > Bergarako Kirol teknikaria


ZURE EGUNEROKO BIZITZAN INTERESA JARTZEN DUGU.
PRIVATA
PRIVATA
Interesa zeuk aukeratu.
Zeure ametsen bat betetzeko, zeure buruari kapritxoren bat oparitzeko edo, besterik gabe, etorkizunean zer gerta ere, horregatik aurrezten duzu. Baina zure aurrezkien truke emandakoaz gozatzeko, ez duzu hilabetetan edo, are, urtetan ere itxaron beharrik. Balia zaitez eskaintzen dizkizugun aukera hauetako edozeinez: zeure ohiko bulegoan, Telekutxaren 901 333 555 telefono-zenbakira deituz, www.kutxa.net helbidean edo kutxa kutxazainetan.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa



Ekitaldian parte hartu zuten bi lagun, II. Oroimenaren Eguna dela-eta kartela esku artean dutela. JULIO CALLEJA

**MEMORIA HISTORIKOA** > II. OROIMENAREN EGUNA

# Ekitaldi hunkigarria egin zuten zapatuan Aramaion

Ahaztuak 1936-1977 elkartekoek azpimarratu zuten gaur egungo zigorgabetasunaren eredua herriaren borondatearekin borrokatu behar dela

**MIRIAN BITERI** > ARAMAIO
Ekitaldi xume baina hunkigarriarekin hasi zen Ahaztuak 1936-1977 elkarteak zapatuan Aramaion egindako Oroimenaren Eguna. Andere Arriolabengoa eta Xabi Igoaren bertsoen ostean, aurreskua dantzatu zuten. Jarraian, Aramaioko alkate Asier Agirrek ezinbestekotzat jo zuen Ahaztuakek egindako lana, benetako historia nolakoa izan zen ezagutarazteko. Elkarteko Lander Gartziak, berriz, zigorgabetasunaren eredua herriaren borondatearekin gailendu behar dela esan zuen.

**80 BAT LAGUN BAZKALTZEN**
Eskolan 80 lagun inguruk egindako bazkarira joan aurretik, Txamba Payesek kantu bat abestu zuen. Arratsaldean, kontzertua eta elkarretaratzea egin zuten horren harira.

IRITZIAK



**Blanka Barroso**
Romaldo Barrosoren arreba

"1976ko martxoaren 3an hil zuten neba, Gasteizen. Bera gogoratzeko etorri gara; ekitaldi hunkigarriak dira. Justiziarik ez dela egon eta ez dela egongo frogatzeko balio dute".



**Benedi Bengoa**
Frankismoko biktima

"Aramaiotik joan behar izan nintzen 11 urterekin; egun Gasteizen bizi naiz. Lobarekin etorri naiz ekitaldira. Jende gutxi egon da, ahaztuta dagoen gaia da".



**Elias Uribarren**
Aramaioarra

"Ekitaldia oso gustuko izan dut eta txalo ederrak bota ditut. Garrantzitsuak dira horrelako ekimenak egitea; dena dela, gazte gutxi izan da; ez dute historia ezagutzen".

**HEZKUNTZA** > AURKEZPENA

# Baketikek gertu du 'Izan' izeneko proposamena

Zapatuan, Arantzazun aurkeztu zuten hezkuntza arloko langileen aurrean



Jonan Fernandez zapatuan. M.B.

**M.B.** > OÑATI
Zapatuan, Baketikek *Izan* izeneko proposamena aurkeztu zuen; bizitzarako, elkarbizitzarako eta hezkuntzarako pedagogia etikoa, hain justu ere. Arantzazuko Gandiaga topagunea egindako aurkezpen ekitaldian, erakundeko zuzendari Jonan Fernandezek horren gaineko hitzaldia eman zuen proposamena gertatzen jardun duen Mertxe Amondarainekin batera.

Fernandezek azaldu zuen hezkuntza-arloko langileei ez ezik, gurasoei eta bizitzaren, bizikidetzaren eta hezkuntzaren inguruan kezka eta gizarte-balore berriak bultzatzeko nahia duten pertsonei zuzendu ta dagoela; baita giza arloa jorratzen duten ikasleei eta langileei ere. Baketikeko zuzendariaren esanetan, "geure burua eta besteak pertsona izaten hezteko baliabide teorikoak eta praktikoak eskaintzea da bere helburua".

**ZORTZI BIZIPEN-IKASKUNTZA**
Pertsona izaten hezteko, Baketikek martxan jarriko duen proposamenak zortzi bizipen-ikaskuntza lantzen ditu: gizakiaren izaera mugatua, esker onaren zentzua, kontzientziari erantzutea, giza duintasunaren esanahia, elkarrizketaren plusa, enpatiaren plusa, pazientziaren plusa eta maitasunaren ikaskuntza.

Zapatuko aurkezpenaren ondotik, apirilaren amaieran proposamen horren esparru teorikoa jasotzen duen *Pertsona izaten hezi. Zortzi ikaskuntza* izeneko liburua argitaratuko dute. Jarraian, maiatzaren 8an, prestakuntza ikastaroa eskainiko dute horren harira. Fernandezen esanetan, "asmoa da hezitzaileen, familien eta lagunen sarea sortzea, koordinatzeko eta datorren ikasturtean horrekin praktikatzen hasteko".

ESANAK

**"Geure burua eta besteak pertsona izaten hezteko baliabide teorikoak eta praktikoak eskaintzea da asmoa"**

**"Helburua da hezitzaileen, familien eta lagunen sarea sortzea, datorren ikasturtean praktikatzen hasteko"**

**Jonan Fernandez**> Baketikeko zuzendaria

## Giza eskubideen eskultura inauguratu zuten Aretxabaletan

Aretxabaletan, joan den eguaztenean, Deba errekaren beste aldean dagoen Iturrizar plaza berrian jarritako giza eskubideen eskultura inauguratu zuten egubakoitz arratsaldean. Ekitaldian, besteak beste, lan horren egile Iñigo Arregi arrasatearra izan zen.

Inaugurazioan, Aretxabaletako alkate Inazio Garrok Adierazpen Instituzionala irakurri zuen eta jarraian, herriko dantzariek *Agurra* dantzatu zuten eskultura parean. Herritar talde batek gertutik jarraitu zuen ekitaldia.


JULIO CALLEJA

BERDINTASUNA

# Eroskiko goi postuen %42 dituzte emakumeek

Emakumeen Egunaren harira jakinarazi du taldeak datu hori

**M.B.** > ARRASATE

Emakumeen Eguna dela-eta, Eroskik asteon jakinarazi du zuzendaritza karguen %42,78 emakumeen esku daudela. Aldi berean, nabarmendu du emakumeek organo sozialen %36,73 ordezkatzen dutela. Taldeak gogorarazi du urteak daramatzala emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiten eta, hortaz, lansarien gaineko baldintza eta ardura berak dituztela langile guztiek.

**BEHATOKIA 2005A EZKERO**

Horretaz gain, langileen %80 emakumeak direla eta 2005. urtea ezkero berdintasunaren aldeko Behatokia duela ere azpimarratu du. Esandako datu horiek guztiek kanpoko enpresa baten oniritzia jaso dute.

**INGURUMENA** > DENDA, OSTALARITZA ETA LANTEGIEI ZUZENDUTA

# Kartoi bilketa zerbitzuaren berri emateko kanpaina abian

Besteak beste, kartoia egun eta ordutegiz kanpo ateratzeak sortzen dituen eragozpenak saihestu nahi ditu horrekin Mankomunitateak



Zapatuetan ezin da edukiontzietan kartoirik laga. M.B.

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuak kanpaina berria jarri du martxan, eskaintzen duen denda eta lantegietako kartoiaren atez ateko bilketa zerbitzuaren berri emateko eta, bide batez, haren egutegi, ordutegi eta arauak gogorarazteko. Horretarako, zerbitzuaren erabiltzaile diren komertzio eta lantegi guztietara esandako informazio guztia biltzen duen txartela bidaliko du datozen egunotan.

Horrekin, zerbitzuaren erabiltzaileek egindako informazio eskaera betetzeaz gain, kartoia egun eta ordutegiz kanpo ateratzeak sortzen dituen eragozpenak saihestu nahi direla jakinarazi du Mankomunitateak.

**880 TONA KARTOI**

Bidaliko duen txartelean azaltzen du joan den urtean zerbitzu horren bidez bildutako kartoi kopurua lehen aldiz txikitu zela. Aipatzen du iaz bizitako krisialdi egoerak bilketa horretan eragina izan zuela, zerbitzu horren erabiltzaile askok euren aktibitatean murrizketak jasan dituztela eta, bide batez, sortutako kartoi kopuru hondakin kopuruan igarri zela. Dena dela, gaineratzen du 2007koa baino handiagoa izan zela. Iaz 880 tona kartoi birziklatu ziren.

Egutegiari dagokionez, gogorarazten du Arrasate, Bergara eta Oñatiko herriguneetan astelehenetik egubakoitzera jasotzen dela; Leintz Gatzagan, martitzenetan eta eguenetan; eta gainontzeko herrietan eta Arrasate, Bergara eta Oñatiko industrigunetan, astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan. Ordutegia 20:00etatik 22:00etara da kasu guztietan.

> MONDRAGON TALDEA

## Elias Atutxa da ATEGIko zuzendari nagusi berria

Elias Atutxa izendatu dute Mondragon Taldeko ATEGIko zuzendari nagusi berri. 2001ean sortutako atari korporatiboak erosketen arloan erakunde elkartuen jarduera ekonomikoa osatu, sustatu eta koordinatzea du helburu. Erosketen jarduerak inoiz baino zentzu handiagoa duela-eta, etapa berria abiarazi dute atarian, Ramon Amasorrainen gidaritzapean proiektua finkatzeko egindako lehen faseari jarraipena emanda.

> ELKARTASUNA

## Apirilaren 12tik 16ra Sahararen aldeko astea egingo dute

Nubi eta Iesbaa elkarteek herri saharararren aldeko astea egingo dute apirilaren 12tik 16ra. Aljeriako Tindouf herrian dauden errefuxiatuen kanpamenduetan eta Mendebaleko Saharan bizi duten gatazka ezagutzeko aukera egongo da dokumental, hitzaldi eta afariaren bidez. Astea behar bezala amaitzeko, gainera, Ismael Serranoren kontzertua izango da apirilaren 16an Arrasaten.



**Irune Bildosola eta Eduardo Eguren** > Aritu Kooperatiba

# "Ingurumen eta energia adierazleak kudeatzeko sistema berritzailea da Ekomanager"

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

**Ikerketa eta Garapen proiektuaren barruan, Aretxabaletako Aritu kooperatibak Bilboko Cimas kontsultategiarekin elkarlanean Ekomanager izeneko sistema garatu du. Arituko Eduardo Egurenek eta Irune Bildosolak azaldu dizkigute sistemaren nondik norakoak.**



Irune Bildosola eta Eduardo Eguren, Aritu Kooperatibako langileak.

**Zer da Ekomanager?**

Ingurumen eta energia arloko adierazleak (emisioak, isurkinak, hondakinak, ura, elektrizitatea, gasa..) kontrolatu, neurtu eta kudeatzen duen sistema berritzailea da. Horrez gain, informazioa automatizatu, sortu eta administratu egiten du.

**Ingurumen kudeaketa eta energetikoa hobetzeko sistema aitzindaria da?**

Bai. Izan ere, orain arte ez da egon adierazle guztiak panel bakar baten islatzen dituen sistemarik. Hainbat sailetan eta formatu ezberdinetan dagoen informazioa antolatu eta bateratzen ditu eta horrez gain, adierazle ezberdinen arteko erlazioak lortzea ahalbideratzen du.

**Enpresa zein erakunde mailan aplikagarria da beraz…**

Erabilerak ez du mugarik. Beharren arabera pertsonalizatu daitekeen erreminta da, hau da, kontrolatu nahi diren adierazleak erabakitzen dira. Udaletxe baten kasuan, herrian diren eraikin ezberdinak: kiroldegia, eskola, igerilekuak, frontoia… Eta bertako adierazle ezberdinen kontrola eramaten du: ura, gasa, elektrizitatea, hondakinak… Baina ez da datuak jaso eta biltzera mugatzen, informazioari etekinik handiena ateratzen dio, txosten ezberdinak lortuz.

**"Orain arte ez da egon adierazle guztiak panel bakar baten islatzen dituen sistemarik"**

Enpresen kasuan, adierazle askoz gehiago sar daitezke eta enpresa bereko egoitzak konparatzeko baliagarria da, eurotan edo CO2-ko isurketetan esate baterako.

**Zein dira abantaila nagusiak?**

Erabiltzeko erraza da (web nabigatzailea baino ez da behar); aplikazioarekin hainbat erabiltzaile batera jardun dezakete elkarlanean; datu bilketa errazten du; teknologia eta ingurumen euskarriari esker prozesu guztia jarraitzeko aukera daukate; eta, azkenik, txosten pertsonalizatuak eskaintzen ditu, hau da, erabiltzaileak nahi duen momentuan eta nahi dituen txostenak eskuratzeko aukera dauka.

**Zein izan da Aretxabaletako Aritu kooperatibaren ekarpena proiektu honetan?**

Proiektuaren muina izan da, aplikazio informatikoa diseinatzeaz arduratu gara-eta. Bi urtetako garapen lana dago atzetik; izan ere, softwarearen programazio guztia burutu dugu eta baita, sentsore, kaptadore eta detektagailuekin komunikazioa lortu eta datu horiek web zerbitzariari bidali.

etxeko leihotik



**Ubane Madera** > arrasate@goiena.com

## Munduan ez da giro; izango ote etorkizunean?

Okindegira sartuta: "A ze eguraldia! Bajoiarekin nabil, eguraldi triste eta hotz honekin. Gero etorriko da uda, eta ito egingo gara. Punta batetik bestera pasako gara". Lanera etorri, eta: "A ze eguraldi petrala! Udaberrian gaude ia eta… oraindik mendiak zuri!".

Halakoxeak ditugu berbagai azkenaldian, baina ez beste berriketa gairik ez dagoelako; oraingoan, eguraldiak ondo irabazitako protagonismoa hartu du berriketetan.

Nik, behintzat, ez dut aurtengo moduko negurik ezagutu sekula: horrenbeste elurte, halako haizealdi indartsuak, Estatuko hegoaldean bizi duten egoera… eta oro har munduan ikusten gabiltzana.

**"Ez da aditua izan behar konturatzeko eguraldia aldatu egin dela"**

Eguraldi kontuetan aditua ez naiz. Baina ez dut uste adituegia behar dela izan konturatzeko egiaren bat badagoela gizakiaren erruz eguraldia aldatu egin dela diotenean.

Ez dakit zein egoeratan dagoen ingurumena; muturreraino iritsi garen edo ez, bueltarik badagoen edo ez. Zoritxarrez, berdin samar da. Fede gutxi edo ia bat ere ez dut gizartearengan. Pertsonek bakarka duten indarra galdu egiten dutela uste dut giza-talde baten parte direnean. Gehiengoa gailentzen da halakoetan, eta gehiengoak ez dio herritarrari galdetzen, goi mailako agintariek eta mundua gidatzen dutenek erakusten duten moduan. Ezetz? Zer gertatu da ba ekonomia kapitalistaren porrotarekin? Zeinek galdu du?

**> Gaizki eraikitakoak agerian geratzen dira eguraldia oldartzen zaigunean; halakoen kontra egiten du lehenengo: mendian gaizki eraikitako txaletak, azpiegitura erraldoiekin lotutako luiziak, itsasotik gertuegi dauden urbanizazioak…**

**> Gizaki larregi gaudela ere nabarmena da munduan. Ez, akaso, gure Euskal Herri honetan, baina mundua osotasun moduan hartuta, bai; horri ere aurre egin beharko diogu, halako batean, gure mundu globalizatu honetan.**

**GIZARTEA** > AIXOLAKO ZENTROA

# Aixolako bost adin txikiko, Zumarragako zentrora

Elgetako zentroan istilu larriak eragin zituzten sei gaztek eguenetik egubakoitzera bitartean

**E.M.** > BERGARA

Eguen gauetik egubakoitz goizaldera bitartean Elgetako Aixola Zaintza Espezializatuko zentroan gertatuko istiluen ondorioz, Ertzaintzak atxilotutako sei atzerritar adin txikikoetatik bost Zumarragako Erreforma zentrora eraman zituzten egubakoitzean, arratsaldez. Seigarrenari jagonpeko askatasuna ezarri zioten, Adin txikikoen Gipuzkoako fiskaltzan deklaratu ondoren.

**ISTILU LARRIAK**

Aipatutako istiluak, esan bezala, eguen gauen hasi ziren. Gazteak begiraleak mehatxatzen eta erasotzen hasi ziren; zortzi adin txikiko ziren Elgetako, Aixolako zentroan, eta antza denez, horietako bi, hezitzaileekin batera, erasotzaileak lasaitzen saiatu ziren. Ezinezkoa izan zen; hiru begirale zaurituak gertatu ziren eta gazteek era guztietako objektuak jaurti zizkieten bertaratutako ertzainei ere. Azkenean, *matxinada*, 00:30ak aldera kontrolpean izatea lortu zuen Ertzaintzak. Auziaren iturriek esandakoaren arabera, kalteak, mehatxuak, irainak, errierta kalapitatsua eta atentatua egotzi zieten gazteei. Bergarako Ertzaintzaren komisarian deklaratu ondoren, esan bezala, bost gazte Zumarragako zentrora eramatea erabaki zuten.


Adin txikikoen Aixolako zentroa, Elgetan. GOIENKARIA

Zumarragara eraman dituzten bost gazteetatik lau Debako zentroan egon ziren aurretik. Debako zentroan obretan dihardute. Bigarren fase bati ekingo dio Debako zentroak etorkizunean, hain gatazkatsuak ez diren gazteekin. Izan ere, zeresan ugari eman du Debako zentroak azkenaldian; SOS Arrazakeriak zalantzan jarri du hango modeloa eta horrek haserrea piztu du Diputazioarengan eta Debako monitoreengan.

Aixolako zentroa abenduan zabaldu zuten. Presaren ondoan, berritutako baserri baten dago adin txikikoen zentroa. Otsailaren 20an ere Ertzaintza joan behar izan zen bertara.

auzorik auzo

**IZURIETA** > Aretxabaletako auzoa da Izurieta; erdigunetik kilometro eta erdira dago. Auzo txikia da, baina lasaia, Luis Otadui auzo alkateak azaldu digun moduan. San Pedro jaiak ospatzen dituzte ekainaren amaiera aldean.



Luis Otadui auzoko elizaren aurrealdean. A.E.

**Luis Otadui** > Izurietako auzo-alkatea

# "Baserrietan lehengo egin behar hori ez dago; hortaz, gustuz egiten da lan orain"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA

**Arrasatearra da jaiotzez Luis Otadui, baina Izurietara ezkondutakoa. Azkeneko urteetan autobidearen gaiarekin kezkatuta egon dira auzotarrak; oraindik ere, errepidea konpondu eta txukun jartzea falta dela erakutsi digu.**

**Zein da Izurieta auzoaren egoera?**

Hamar etxebizitza ditugu, baina zortzi etxetan bizi da jendea. Beste auzoetan gertatu den moduan, hemen ere zahartu egin dira bizilagunak.

Hala ere, etxe gehienetan umeak daude; gertatzen dena da kalean bizi direla eta auzora aste bukaeretan etortzen direla.

**Hortaz, badator generazio berria atzetik!**

Hutsik geratzeko arazorik ez daukagu, ze auzo hau paraje lasaian dago-eta. Hemen trankil bizi gara. Gazteak dauden etxeetan ganadua mantentzen dute: ardiak, behiak, zaldiak… bertan bizi izateko paraje ederra da. Gainera, lehengo egin behar hori ez daukagu; hortaz, dauden gauzak gustuarekin jarrita daude.

**Auzoak duen arazoetako bat errepide dela esan daiteke?**

Zeharo apurtuta dago beheko aldean. Bere sasoian autobidean lanean ibili zirenean apurtu zuten eta oraindik konpondu barik dago. Kalean hasi eta elizarainoko errepide zatia Diputazioarena da; konpromisoa dago Diputazioaren aldetik konpondu egingo dituela bai beheko zatia eta baita Udalaren zatia ere.

Bestalde, autobidearen zaratari dagokionez, beste kezka bat daukagu. Lehen hemen ez zegoen zaratarik, errepideko zaratarik ez zen iristen hona; orain, ordea, bai. Neurtzekoak dira, konponbidea emateko.

**Auzoko mantentze eta beharrak direla eta, hainbat eskaera egin dituzue Udalean.**

Udalari eskatu izan diogu saneamendua egiteko, suaren aurkako ur puntu gehiago jartzeko, wifi sartzea, gasa… eskaera horiek auzo guztietatik egin izan ditugu. Aretxabaleta mailan, adibidez, ez da egin saneamendu lanik; eta, horrelako lanak, adibidez, komenigarriak dira auzotarrendako.

**"Diputazioak konpromisoa hartu du errepide zatia konponduko duela"**

**"Auzoan dagoen Izurieta azpiko baserria da Izurietarren jatorrizko etxea"**

**San Pedro elizan erromaniko garaiko aztarnak daude. Zer ikus daiteke?**

San Pedro parrokiko eskumako leihoa da erromanikoa. Balio handien zuena Izurietako Ama Birjina zen, gotikoa; baina bere garaian Musakolako San Isidro ermitara eraman zuten.

Bestalde, auzoan dago Izurieta Azpikoa baserria, izurietarren jatorrizko etxea dena.

**Ezer berezirik egiten duzue San Pedro jaietan?**

Meza esaten dugu eta ostean luncha izaten dugu. Auzoko nagusiak etortzen dira eta tertulian egoten gara. Hori izaten da gure ospakizuna.

**Garai baten, burdinola bat omen zegoen auzoan.**

Nik esango nuke bere garaian, hemen, tontorrean, burdinola bat egon zitekeela; izan ere, hemengo paraje bati Labeate esaten zaio. Burdin meatzeak ere badaude inguru honetan.

**Mendi ibilaldi politak egiteko aukera eskaintzen du auzoak.**

Esan behar da aukera asko daudela: Ametzagara bidea laua da, paseorako. Mendira ere jende asko joaten da, irteera politak daude-eta. Arrasatera joan daiteke, Murura, Galartzara, Untzillara… Gainera, zirkulazio txikia dago, ez da-eta pasoko bidea.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
MARTXOKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro



DANBAKAKO HIRU DISKA
Bidali KLUBA DANBAKA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
DANBAKA



UMEENTZAKO LIBURUAK
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea



SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET



GOIENAKO PENDRIVE-A
Bidali KLUBA PENDRIVE [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Goiena Komunikazio Zerbitzuak



SARI NAGUSIA
URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
JOCCA RACLETTE



• Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
• Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

Ezker Batua Berdeek antolatuta amiantoaren gaineko hitzaldia egin zuten eguenean Arrasateko Kulturaten. Amiantoarekin lan egin dutenei nola lagundu aztertu zuten Jesus Uzkudun CCOOko osasun arduradunak eta Araceli Larios lan medikuntzan adituak. Aukera aprobetxatu genuen Uzkudunekin egon eta lan gaixotasunei buruz berba egiteko.

**Jesus Uzkudun** > CCOOko lan osasuneko arduraduna

# "Kooperatibetako langileek ez dute lan gaixotasunen aitorpen eta eskubidea"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Jesus Uzkudun lan osasunean eta, bereziki, amiantoaren aurkako borrokan aditua da. Amiantoaren ondorioz gaixorik daudenei laguntzen dihardu. Substantzia horrek gure bailaran izan duen eragina azaldu digu.**




Jesus Uzkudun, GOITBko platoan. A.E.

**Non erabili izan da amiantoa?**

Zoritxarrez, orain dela 40 urte eta baita 20 urte ere oso erabilia izan zen. Batez ere, erabiltzen zen beroa zegoen tokietan: labeetan, galdategietan... baita autoen frenoetan zapatetan, galdaretan, hodietan, azulejoetan, uralitan ere. Askotariko erabilerak izan zituen amiantoak.

**Noiz jakin genuen amiantoak minbizia sortzen zuela?**

Nik neuk amiantoarekin lan egin dut, eta ez geneukan horrelako informaziorik. Europako Ingurumen Agentziak argitaratu zuen *Lecciones tardías de alertas tempranas*, eta hor agertzen da 1900. urte inguruan bazegoela Ingalaterran horren inguruko literatura. 1920an, adibidez, Ameriketako Estatu Batuetan aseguru etxeek ez zituzten amiantoarekin lan egiten zuten langileak aseguratzen.

Espainian, gerra ondoren, berehala hasi ziren aitortzen asbestosia lan gaixotasun moduan; baina, ez zen inolako neurririk hartu. Nik uste dut badagoela amiantoa ekarri duten enpresen ardura, eta baita estatuaren –eta, garai hartan, diktadura– ardura ere. Beste herrialde batzuetan debekatzen zebiltzan bitartean, hemen ez zen inolako neurririk hartu.

**Gaur egun debekatuta dago amiantoa erabiltzea?**

Gaur egun hemen debekatuta dago erabiltzea, baina harrigarria da Kanadatik eta beste herrialde batzuetatik amiantoa bidaltzen dutela Indiara, Pakistanera... jendearen osasunari inongo baliorik eman gabe.

**Debagoienean ze lantegitan erabili izan da amiantoa?**

Gauza bat da non erabili zuten eta beste bat nork onartu zuen erabiltzen zuela. 1984an amiantoa erabiltzen zuten enpresak deklaratzera behartuta zeuden. Hemen, Union Cerrajerak bakarrik deklaratu zuen; baina gero ikusi da gehiagok erabiltzen zutela; adibidez, Bergarako Maik eta Fagorren.

**Eta amiantoarekin lan egindako zenbat langilek dute gaixotasunen bat?**

Guk dakiguna da langile asko dabiltzala minbiziak jota hiltzen. Uste dugu askotan ezkutuan geratu direla; sindikatuek ez badituzte aztertzen, medikuek eurek ez dute ezer esaten. Galdetu ere ez dute egiten zerekin lan egin duten langileek. Zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta gaixo gehiago ari dira azaltzen.

**Azaldu duzunez, bailara honetan gaixotasuna onartzeko badago beste oztopo bat.**

Bai, gaixo asko eskubide barik daude, edo euren gaixotasuna ez da lan gaixotasun moduan aitortzen kooperatibistak izan direlako. Lan gaixotasuna da erregimen orokorrean daudenendako bakarrik. Besteak ezkutuan geratzen dira eta ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik. Pertsona horiek izorratuta geratzen dira. Autonomoek ez dute lan gaixotasunik. Horregatik, uste dugu Estatuari eskatu behar zaiola fondo bat sortzeko gaixo guztiek eskubidea izan dezaten.

AMIANTOA

**"Orain dela 20 urte arte erabiltzen zen beroa zegoen tokietan: labeetan..."**

EUROPA

**"Europako agentziaren arabera hurrengo urteetan 250.000 langile hilko dira pleura minbiziarekin"**

ERREGISTROA

**"Amiantoarekin lan egin zutenekin erregistro bat osatu nahi dugu"**

**Minbiziaz gain, beste ze gaixotasun mota sor dezake amiantoak?**

Europako agentziak argi esaten du hurrengo urteetan Europan hilko direla 250.000 langile pleurako minbiziak jota. Beste horrenbeste izango dira birikako minbiziarekin, eztarrikoarekin... aurreneko sintomak dira asbestosi edo plaka pleuralak. Agertzen dira biriketan orban batzuk eta momentuan kaltegarriak ez izan arren, ze gaixotasun etorriko zaizun iragartzen dute.

**Hitzaldian azaldu duzu nola lagun dakiekeen amiantoarekin lan egin zutenei.**

Guk nahi dugu amiantoarekin lan egin zuten guztiekin –gaixotasunak izan edo ez– erregistroa egitea. Emakumeen kasuan bularreko minbiziarekin egiten den moduan, langile hauei ere proba bereziak egin beharko litzaizkieke. Bestalde, medikuek badute nola lagundu: horrelako gaixotasun bat agertzen denean Osakidetzako mediku guztiek ardura dute parte emateko lan gaixotan susmo moduan; eta sindikatuekin kontaktuan jar daitezela tramiteak egin eta kalteordainak eskatzeko.

**Horiek guztiak lan gaixotasun moduan onartuta daude?**

Datu bat: Alemanian eta hemen lan gaixotasunei buruzko legislazio bera dago. Alemanian minbizien %13 lan gaixotasun kontsideratu dira eta gure herrian %0,5 besterik ez. Nik uste dut ez dagoela genetika arrazoirik; hemen, ezkutuan geratzen dira. Aspaldian kasu asko ari dira agertzen; amiantoaz gain, baita beste substantzia batzuekin kutsatutakoak ere.

**Amiantoaz gain, beste substantzia batzuk ere kaltegarriak dira; amiantoaren aurka egiten duzuen lanak balio du beste substantzia horien aurka ere?**

Bai, guk batez ere gurako genuke amiantoaz ikasi. Amiantoarekin gertatu dena beste substantzia batzuekin gerta ez dadin. Azken urteetan silikosia bikoiztu egin da gure herrian; uste genuen meatzeetako gaixotasuna zela, baina galdaragintzan eta eraikuntzan ere kasu asko agertu dira. Berdin gertatzen da egurraren hautsarekin. Gaur egun, egur hautsa oso fina da, makinek asko fintzen dute; eta hauts hori samur heltzen da gure biriketara, eta gaixotasunak eragin.

**Gaixotasun horien eraginez lan istripuetan baino langile gehiago hiltzen dira?**

Bai, Europako agentziak esaten du lan istripuetan baino hamar aldiz langile gehiago hiltzen direla lan gaixotasunen ondorioz.

Baina zenbaki borobil bat esatea zaila da; izan ere, askotan, hildakoaren familiak oztopo asko izaten ditu gaixotasuna lan gaixotasun moduan onartzeko. Istripua momentuan izaten da eta ezin da ukatu edo tapatu. Baina minbizia kutsatu eta 40 urtera ager daiteke.




# Bergarako lau t'erdiko Soraluce Koop. Saria

**FINALERDIAK**
**Yoldi-Larrañaga eta Mendizabal-Onzalo**
Eguaztenean, martxoak 17, 22:15ean
Eguenean, martxoak 18, 18:00etan

**ETA DATORREN ASTEAN FINALA ESKAINIKO DIZUGU.**

Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

## kale inkesta

# Tabakoaren aurkako legea gogortzen hasi zenetik erretzaile gutxiago dagoela uste duzu?



**Mikel Lasa**
Langilea
Arrasate

Nik uste dut jendeak gutxiago erretzen duela orain. Lantokian ikusten dut hori, esate baterako. Dena dela, nahiko malguak izan dira legea aplikatzeko orduan. Egiten bada, betetzeko izan beharko litzateke, ala?



**Lourdes Mendia**
Langilea
Soraluze

Baietz uste dut... Ni ez naiz erretzailea baina legeak eragin apur bat izango zuelakoan nago. Edozein modutan, beste kontu batzurekin agertzen ez duten malgutasuna egon da tabakoarekin.



**Iñaki Garai**
Langilea
Mar del Plata, Argentina

Ez dut uste erretzaile gutxiago dagoenik... Beharbarda tabakoaren prezioagatik jaitsiko zen baina ez dut uste tabakoaren aurkako legea erabakigarria izan denik. Noizean behin erretzen jarraitzen dut nik.



**Leire Irazabalbeitia**
Langilea
Arrasate

Jendeak ez du orain lantokian eta beste hainbat toki publikotan erretzen, baina antzera erretzen dutela esango nuke. Egia esan, ez dut alde handia nabaritzen. Tabakoa garestiagoa jarriko balute agian...

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ELGETA
**> Aixolako adin txikikoen zentroa dela eta**

Elgetako gizon batek oso haserre deitu zigun egubakoitzean, Aixolako adin txikikoen zentroan gertatutakoaren berri izan eta gero. Haren esanetan, lotsagarria da gazteek begiraleekin izandako portaera eta gertatutakoaren ondoren, neurri gogorrak hartzea eskatu nahi die Diputazioko arduradunei. Aixolan istiluak eragindako gazteetako batzuk lehen ere antzeko portaera erakutsi zuten Debako zentroan eta horrelakoak onartezinak direla dio Elgetako gizonak; "beraien herrialdera itzuliko nituzke inolako zalantzarik gabe. Nahikoa da. Beraien ingurukoen integraziorako traba baino ez dute egiten".

OÑATI
**> Zorionak zine-klubeko antolatzaileei**

Oñatiko emakume batek eguenero zine-klub emanaldiak antolatzen dituen taldetxoa zoriondu nahi du. Ibarreko aretoetan nekez ikus daitezkeen film interesgarriak ekartzen dituztela dio, eta aspaldidtik egiten duten lana txalotu nahi du emakumeak.

BERGARA
**> Aparkaleku gutxi herri erdian**

Aparkaleku arazoarekin kezkatuta dagoen bergarar baten e-maila jaso dugu. Hainbat egunetan herri erdian aparkatzea ezinezkoa dela dio, eta horren aurrean neurriak har ditzatela eskatu nahi die Udaleko ordezkariei.

## usteak uste

**Mirian Biteri**

# 'Hibernatzeko' garaia pasa da

Udaberriari ongi etorria egingo diogu behingoz zapatuan, 18:32an. Aurten, 92 egun eta 18 ordu iraungo du horrek; hain justu ere, ekainaren 21era arte. Ia 100 egun dauzkagu aurretik urtaro horretaz gozatzeko. Hilaren 28ko ordu aldaketarekin batera, udako ordutegia hasiko da eta atzean utziko ditugu neguko gau amaigabeak.

Udaberriarekin batera, eguzkia eta argitasuna gurera itzuliko direla pentsatu gura dut. Baina, horrela izango ote da? Datuek oso bestelakoa diote. Euskal Herrian udaberria oso euritsua izaten dela eta apirilaren erdialdera arte elurra dakarten airemasa polarrak sartzea ez dela batere harritzekoa erakusten dute urtero jasotako datu horiek. Eguraldia oraindik ezin dugu aldatu eta hortaz, gura duena egingo du. Baina, 'hibernatzeko' garaia pasa da eta kalera irtetekoa iritsi da!

## zorroztailea



**Markos Balentziaga**

# UPyD da notizia

Eusko Legebiltzarrak EAJk egindako legekoa ez den proposamena ezetsi du PPren eta PSOEren botoekin. TVEk lurraldeko deskonexioetan euskarazko saioak emititzea proposatzen zuen EAJk. Aldeko bota eman zuten EAJk, EAk, Aralarrek, EBk eta Rosa Diezen UPyD alderdiek.

El País > 2010-03-12



Bada gure EHC (Euskal Herria Cultural) haluzinante samar honetan joan dan egubakoitzeko papeleko prentsan hotsandi eta arranpalo haundi barik joan dan kontutxo bat, jarraixan komentatzera goiazena.

Hauxe da El Pais egunkari madrildarrak (Pais Vasco ediziñuan) —eta Madrilleko egunkarixak baño ez— jasotzen zeban notizia: PNVk Gasteizko Parlamentuan TVEk Euskadirako programetan (bertarako lurraldeko deskonexiñotan) euskeria be erabiltzia eskatzen zeban proposamen bat aurkeztu zeban; eguenian, itxura danez.

PSOE(PSE)-PPren boto-zakukadiak, euskeriaren zabaltziaz zintzo-zintzo arduratuta, jakina danez, (EITB, ortuzaharra zana, ortubarritu barik ortuzaharragotu egin dau Alberto Suriok, EITBren erabilleriaren estatistiken arabera) atzera bota zeban proposamena eta PNVren, Aralarren, EAren, EBren eta UPyDren botuen boltsikokadatxua horretxtan geratu zan... hau da, ezetan be ez!

> **"Siglak ondo irakurri dituzu, irakurle maite hori"**
>
> **"UPyDko txakurtxo buztan motzak zuzen emon ete zeban botua?"**

Kontua da, Gasteizko Parlamentuko sigla-saldan, proposamenaren alde UPyD agertu zala!

Siglak zuzen irakurri dittuzu, irakurle maite horrek. Akasorik akasoenian idatzi nahi izan dodana PSyE (PorruSalda y Euskadi) zala iritziko zeneutsan, edota PPyP (Puerros, Pimientos y Patatas) edota holako beste antzekoren bat... baina ez da holaxe; bai idatzittakua eta bai irakurri biharrekua UPyD (Unión, Progreso y Democracia) da, edota bestela esanda, ulergarrixago baderetxozu PRD (Partido de Rosa Diez).

Gorka Manero UPyDk Gasteizko Parlamentuan daukan PPn eta PSOE(PSE)n txakurtxo buztan-motzak zuzen emon ete zeban botua? Horixe egin biherreko galderetako bat; ez ete zan okertu? RDk (Rosa Diez), eguen gabian, berba erdi esan barik trankil-trankil oheratzen laga ete zeban Manero jauna? RDk TVEk Euskadiko programak euskeraz be emotia nahi dau benetan?

EHCn, arantza bariko elorririk ez daguana inork azalpen haundirik emon barik be kontu ezaguna zalakuan nenguan ni.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Xabier Urtzelai **Erredakzioa** Edu Mendibil, Jon Berezibar, Mirian Biteri
**Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Arrasateko kaleak garbitzen milioi bat euro pasa gastatzen du Udalak urtean **> 14**



**> BERGARA**
Bergarako jai batzordeko kideek herriko jaiak antolatzen laguntzeko deia egin dute **> 16**



**> ELGETA**
Osasunaren eta ardoaren artean dagoen loturaren gaineko berbaldia izango da eguenean **> 20**

**ARRASATE** > AED ELKARTEA

# Okela gisatua dastatuz eman dio bazkide kanpainari hasiera AEDk

**KANPAINA**
Jende dezente hurbildu zen AEDren txosnara, SUDCkoek prestatutako okela gisatua dastatzera

**ARGAZKIA PLAZAN**
Lehenbizi euskaltzaleen argazkia atera zuten

**EKAINERA ARTE**
San Juanetan bukatuko dute bazkide kanpaina



Zapatuan, AEDren deiari erantzunez, 60 euskaltzale inguru batu ziren taldeko argazkia ateratzeko. JULIO CALLEJA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

*Aldien eruen deigun* lelopean, AED elkarteak bazkide kanpainari hasiera eman zion zapatu eguerdian, Arrasateko plazan. Hotzak ez zuen jendea atzera bota. Zazpi graduko tenperatura egiten zuen eguerdian, eta berotan sartzeko eskertzen zen bai AEDko kideek banatzen zuten okela gisatuaren platertxoa eta tragoxka bat. Jende dezente hurbildu zen AEDren txosnara.

Lehenik eta behin taldeko argazkia atera zuten AEDko kideek. 60 bat lagunek erantzuten zioten deiari eta argazkia atera orduko, AEDko kideak gertu zeuden okela gisatua banatzeko. SUDCko presidente Juan Luis Arkauzek emandako datuen arabera, 20 bat kilo gertatu zuten sukaldari jardundako gastronomia elkarteetako ordezkariek. 23 elkarte batzen dira SUDCn eta zortzik kolaboratu zuten zapatuko ekimenean. Goizean goizetik lan egin zuten sukaldariek, mokadua hartu zuten guztien gozamenerako.

Bizpahiru ezkontza ospatu ziren zapatuan Arrasateko udaletxean eta San Juan parrokian, eta hango gonbidatuak plazan batutako euskaltzaleekin nahasten ziren. Jantziei erreparatuta, ezin ukatu deialdia dotorea gertatu zela.

**BAZKIDE BERRIAK ERAKARRI**
Itxaro Artola AEDko dinamizatzailearen arabera, azken 15 urteotan ez dute bazkide kanpainarik egin eta belaunaldi berriak erakartzea da kanpainaren helburuetako bat; "Belaunaldien arteko *trasbasea* beharrezkoa da elkartea bera berritzeko eta horregatik garrantzi handia ematen diogu bazkide berriak erakartzeari. Azken baten, bazkideak dira elkartearen bihotza eta jende berriak lekukoa hartzea ezinbestekoa da edozein elkartek aurrera egiteko".

**SAN JUANAK BITARTEAN**
Joan den urtean zilarrezko ezteiak, 25 urte bete zituen AED elkarteak 750-800 bazkide ditu gaur. Zapatuan abian jarritako bazkide kanpainak San Juanak bitartean iraungo du; bien bitartean hainbat ekitaldi iragarri dituzte. Apirilean, esate baterako, euskara elkarteen arteko topaketa-olinpiada egingo dute eta maiatzean auzoko jaietan izango dira, maiatzaren 1ean San Andresen eta hilaren 15ean Musakolan. Era berean, bazkide egiteko mahaiak kalera aterako dituzte eguenetan, pintxo-poteoarekin sortzen den giroa aprobetxatuta. Helburua, esan bezala, euskaltzale taldea indartzea.



**Juan Luis Arkauz**
SUDCko presidentea

Emaztea bada AEDko bazkide. Euskalgintzan lan interesgarria egiten dabil AED aspaldidik eta eskertzekoa da. Gaurko ekitaldira Arrasateko zortzi elkarte gastronomiko batu gara.



**Igone Altzelai**
Arrasate

Oraindik ez naiz AEDKo bazkide, eta gure aita okela gisatua gertatzen lagundu duenez, plazara hurbildu gara. Herrirako beharrezkoak dira AED moduko elkarteak.



**Jesus Moreno**
San Isidro elkartekoa

Okela gisatua gertatzen lagundu dugu gaur eta, bestalde, gure elkartean, San Isidron, euskararen erabilera bultzatzeko konpromisoa ere badugu. Poliki-poliki urratsak ematea da asmoa.



**Maitane Muñoz**
AEDko kultur teknikaria

Euskara elkarteen gaurko egoera ikusita, beharrezkoa da bazkideen kaptazioa indartzea eta gure egitasmoak plazaratzea. Herriko gastronomia elkarteek laguntza ederra eman digute gaur.



**Izaskun Arana**
Arrasate

Ez naiz AEDko bazkidea baina elkarteak egiten duen lana ondo ikusten dut eta gaurko moduko ekitaldiak ondo daude haien lana ezagutzera emateko. Euskara elkarteak beharrezkoak dira.

**ANTZUOLA** > GASTRONOMIA

# Extremadurako ogi-mamiek arrakasta izan zuten atzo




Extremadurar erara gertatutako ogi mamiak jan zituztenek jakinarazi ziguten gozoak zeudela. JULIO CALLEJA

HERRITARREN ESANAK



**Jose Herzog**
Antzuola

"Ni andaluziarra naiz, baina emaztea Extremadurakoa da. Antzuolan horrelako jaialdiak antolatzen dituztenean hartzen dugu parte, baita Bergarara joaten direnean ere. Oso giro polita dago".



**Visi Horrillo**
Eibar

"Eibarren bizi naiz baina Kintanakoa naiz. Sortzen den giroagatik, gustuko ditudan jaiak dira eta joateko ohitura daukat. Datorren astean, esaterako, Ermuan egingo den ekitaldira joateko asmoa dut".



**Juan Benitez**
Antzuola

"53 urte ditut eta 52 urte daramatzat Antzuolan. Horrelako eguraldiarekin ederto sartzen dira ogimamiak. Gainera, jaialdiaren bidez, beste herrietan bizi den jendea ikusteko aprobetxatzen dut".



**Juan Mari Sanchez**
Arrasate

"Higuera de la Serenatik etorri nintzen orain dela 40 urtetik gora. Corazon de Encina elkarteko kidea naiz eta Extremadurako kultura ezagutarazteko etorri naiz Antzuolara".

## Arrasateko Corazon de Encina elkarteak Extremadurako jakiak eskaini zituen atzo Herriko plazan

**MIRIAN BITERI** > ANTZUOLA

Arrasateko Corazon de Encina elkarteko lagunak Antzuolan izan ziren atzo goizean, Extremadurako gastronomia ezagutarazten. Herriko plazan gertatutako jaki guztien artean, extremadurar erara prestatutako ogimamiak izan ziren harrera onena izan zutenak.

Elkarteko kide Esteban Sanchezek eta Juan Carlos Bañuelosek ogi-mamien sekretua azaldu ziguten han: "Hamar ogi-zaku ekarri ditugu eta oraingoz zazpi erabili ditugu. Lehenik eta behin, ogia ura, gatza eta olioarekin egiten dugu; beste lapikoetan, urdai frijitu eta xingarra, piperrak eta berakatzak erretzen ditugu, eta dena gertu dugunean, batera zerbitzatzen dugu". Ogi-mamiak debalde banatu zituzten, eguerdi partean, herriko plazan bildu zirenen artean.

Ogi-mamiez gain, bestelako produktuak probatzeko aukera ere izan zen. Horiek, baina, ordaindu behar ziren. Bañuelosek eta Sanchezek esan ziguten egun horretarako egindako 400 erroskilak azkar saldu zituztela, bakoitza euro baten truke. Urdaiazpiko iberikoa eta ahuntz-gazta ere bazegoen; lehena, platera zortzi eurotan, eta bigarrena, euro batean pintxo bakoitza. Momentuan bertan erretako txitxi-burruntziek ere usain ederra zuten. Corazon de Encinakoek 30 kilo zituzten eta 13:30ean 20tik gora zituzten salduta, 1,5 euroren truke.

**BALORAZIO POSITIBOA**

Elkartekoak pozik zeuden jaialdiak izandako harrerarekin: "Egiten duen eguraldiarekin jende nahiko etorri da eta hortaz, ekimenaren balorazio positiboa egiten dugu. Arriskutsua da jaialdia neguan egitea baina, ogi-mamiak garai horretan jatekoak dira".

**ANTZUOLA** > AIHERRA-ANTZUOLA SENIDETZEA

# Iparra eta Hegoa lotu zuten bertso saioaren bidez

Torresoroako aretoa bete egin zen sei bertsolariek eskainitako emanaldi umoretsua entzuteko

**M.B.** > ANTZUOLA

Aiherra-Antzuola 25. urteurreneko ekitaldien harira, errepikatzeko moduko kultura ekitaldia egin zuten zapatuan Antzuolan: Iparraldeko eta Hegoaldeko bertsolariek eskainitako bertso saioa. Torresoroako aretoa bete zen Amets Arzallus, Txomin Elosegi, Patxi Iriart, Iñaki Gurrutxaga, Ainhoa Agirreazaldegi eta Uxue Alberdi entzuteko. Hizkuntzan eta kultura erreferentzietan dauden aldeak nahastuz, saio umoretsua eskaini zuten. Jarraian, herriko bertso eskolakoekin afaria egin zuten.



Iñaki Gurrutxaga (ezkerrean) eta Patxi Iriart, zapatuko ekitaldian. JULIO CALLEJA

**ARETXABALETA** > ZUHAITZ EGUNA

# Haur eta gurasoek hartu zuten parte atzoko Zuhaitz Egunean



Goroetatik gertu dagoen urtegiko lurmuturrean egin zuten landaketa. MIRARI ALTUBE

200 lagundik gora elkartu ziren Urkulun; Naturgintza fundazioko kideen laguntzaz 60 zuhaitz landatu zituzten domeka eguerdian

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

200 lagundik gora elkartu ziren atzo Urkuluko uren inguruen, Zuhaitz Eguna ospatzeko. Udalak deialdi berezia egin zuen ikastetxeetan eta partaide gehienak gurasoak eta gaztetxoak izan ziren.

Naturgintza fundazioko kide batek zelan landatu azaldu zien lehenbizi eta jarraian 60 zuhaitz landatu zituzten: ametsak, astigarrak eta gorostiak. Inaxio Garro alkateak, Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziak eta Lore Martinez, Arritxu Oliden eta Juanan Gutierrez zinegotziek ere hartu zuten parte.

Amaieran, mokadua eskaini zieten partaide guztiei, indarrak berreskuratzeko.



55 lagun elkartu ziren egubakoitzeko bingo-afarian. ANA MARTIARENA

**ARAMAIO** > EMAKUMEAREN ASTEA

# Partaidetza handia izan da Itur-Zuriren ekitaldietan

**E.M.** > ARAMAIO

Emakumearen Eguna ospatzeko Itur-Zuri emakume elkarteak antolatutako ekitaldiek erantzun bikaina izan dute. Egubakoitzean, 55 lagun elkartu ziren Eskolako jangelan egindako bingo-afarian; 19:00etatik 21:00etara bingoa izan zuten eta jarraian, lagunarteko afaria. Goizeko ordu biak aldera amaitu zuten batzuek eta txisteak kontatzera animatu zenik ere egon zen. Jasotako erantzunarekin eta sortutako giroarekin oso pozik azaldu ziren Itur-Zuri emakume elkarteko ordezkariak.

**IKUSMIN HANDIA ANTZERKIAK**

Martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekitaldiak zapatuko antzerki emanaldiarekin bukatu ziren. Aspaldiko partez, *Xabinaitor* ikusteko lepo bete zen kultura etxea eta aulki gehiago jarri behar izan zituzten. Ikusleek gustura egin zuten barre. Ane Mondragonek emandako makillaje ikastaroa ere arrakastatsua gertatu da; 45 lagunek hartu dute parte.



**ZERBITZUAK** > GARBIKETA

# Arrasateko kaleak garbitzea milioi euro pasa kostatzen da urtean

Herria guneka dago banatuta, lehentasunen arabera; batzuk egunero garbitzen dira; beste batzuek, berriz, maiztasun txikiagoa dute

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Sarri ez gara jabetzen norberaren herriko lan orokorrek eragiten dituzten gastuekin, pentsatu baino gehiago kostatzen direlako halako asko.

Hori da bideen garbiketaren kasua, adibidez. Aurtengo aurrekontutik 1.190.000 euro erabiliko ditu Udalak Arrasateko bideak garbitzen. "Kale guztiak sartzen dira hor: erdigunekoak, auzoetakoak eta baserri-auzo nagusienetakoak", azaldu du Amaia Aranak, garbiketarekin arduratzen den udal teknikariak.

Arrasate guneka banatzen dute, lehentasunen arabera. Hala, egunero garbitzeko guneak daude (kale eta etorbide nagusiak: Gipuzkoa etorbidea, Araba etorbidea, erdigunea…). Astean hirutan garbitzekoak ere badaude (jolasparkeak, auzoetako saltokiguneak edo auzoetako kale batzuk); baita bi bider garbitzekoak ere (Makatzena, Obenerreka, San Josepe, Iturripe, Gorostiza…); eta baita astean behin garbitzekoek (aktibitate txikiagoa dutenak).

Azkenik, badaude gune batzuk hilean behin garbitzekoak (industria-guneak) eta beste batzuk, urtean hirutan (arkupe batzuk, bide bazterrak…).

**ARRATOI GARBIKETAK, BIRRITAN**

Kale garbiketan honako egitekoak sartzen dira: errepideak garbitzea, paperrontziak hustu, eskailerak garbitu, txakur-kakak batu, estolda-zuloak garbitu, parkeak, pasabideak eta kirol-guneak.

Horrez gain, beste lan berezi batzuk ere egiten dituzte; adibidez, hilero egiten dute herriaren errebisioa, arratoien egoerari dagokiona; eta urtean birritan garbiketa kanpainak egiten dituzte, Udalean jasotako herritarren kexuen arabera antolatuta.

Bestalde, beharrezkoa denean, bestelako mamorroak ezabatzeko tratamenduak ere egiten dituzte; labezomorroak garbitzeko, esaterako.

Eta, adibidez, eskolen patioak garbitzen dituztenean desinfekzio lanak ere egiten dituzte; jai berezien osteko garbiketaz arduratzen dira, San Juan, Santamas eta halakoetan; eta beste adibide bat ipintzearren, zuhaitzen hostoak batzeko lan bereziak ere egiten dituzte.

**IA 18 LANGILE**

Hori guztiori egiteko azpiegiturari dagokionez, honako lantaldea erabiltzen dute: 17,40 langile; 15,40 garbiketa lanetarako eta gainerako biak saneamendu lanetarako.

Makineriari dagokionez, berriz, honako hauxe erabiltzen dute Arrasaten: errepide eta espaloiak garbitzeko bi kamioi handi, eskobatzeko bi makina ertain, ura botatzeko makina bat, beste bi kamioi txiki trasteak garraiatzeko, eskobatzeko zazpi karro txiki, haizea erabilita garbiketa egiten duten lau motxila, hostoak batzeko hiru makina, zaborrak batzeko bi makina, ura erabilita garbiketa egiten duen makina bat, eta inspekzioak egiteko furgoneta bat.

**ENPRESA MULTINAZIONALA**

Cespa enpresak egiten ditu Arrasaten garbiketa lanak. 2007an sinatu zuten azkeneko kontratua, hurrengo zortzi urteotarako; beraz, 2015era arte segituko du jardun horretan.

Azken hiru urteotan milioi euroko kostua gainditu egin du kale garbiketak Arrasaten. 2007an 1.048.974 euroko aurrekontua izan zuen eta iaz, 1.114.218koa (hileko 92.851 euro).

Garbiketa lanak egiteaz gainera, Arrasateko lorategien zaintza eta mantenua ere Cesparen eskuetan dago, besteak beste.

Ferrovial taldekoa da Cespa. Espainian, Andorran eta Portugalen eskaintzen ditu zerbitzuak Ferrovial taldeak. Enpresa multinazionala da, beraz. Edozelan ere, egoitza nagusia Bartzelonan dauka.

DATUA

**20.000**

**EURO**

Arratoien kontrako tratamendua 20.750 euro kostatu zen iaz, hilero 1.729 euro. Egiten dutena da hilero herriaren egoeraren errebisioa, eta urtean birritan garbiketa kanpainak, Udalean jasotako eskaeren arabera.



Cespako langileak Arrasateko kaleak garbitzen, egubakoitzean. U.M.



Abaroa berriaren itxura ezohikoak atentzioa ematen die askori. U.M.

**NAGUSIAK** > ABAROAREN URTEKO BATZARRA

## Abaroaren lekualdaketa berbagai izango dute batzar nagusian eguaztenean

Abaroako bazkideei batzarrean parte hartzeko dei egin diete, "zalantza, kezka eta galdera guztiak" bertan plantea ditzaten

**UBANE MADERA** > ARRASATE

San Juan jai inguruan estreinatu ahal izango dute Abaroakoek eurendako eraikitzen dabiltzan egoitza berria. Arrasateko Udalak ere berretsi egin du data hori, obraren martxa ikusita. Eta, justu, egoitza berrirako lekualdaketa izango da eguazteneko (martxoaren 17an) batzar nagusian landuko duten puntuetako bat. 17:00etan hasiko da batzarra, Abaroa zaharreko bosgarren aretoan.

**KUOTA ETA EKITALDIAK GORA**

Abaroako zuzendaritzak aurtengo aurrekontua ere aurkeztuko die bazkideei eguaztenean: "Aurreko urteko linea bera segitu dugu. Krisiaren eraginez Udaletik jasotzen dugun aurrekontua apurtxo bat jaitsi da, baina aurreikusi baino gutxiago", kontatu du Jose Rivierek, Abaroa elkarteko presidenteak.

Hark jakinarazi du, baita ere, urteko kuota igo egin dietela bazkideei, sei euro eta erditik zortzi eurora. "Ekitaldien prezioak ere igo ditugu. Ahalegintzen gara gastu eta sarreren artean oreka mantentzen, zeroaren bueltan ibiltzen, nahiz eta beti ez lortu", dio presidenteak.

**PARTE HARTZEKO DEIA**

Halakoak eta beste azaldu behar dizkiete, beraz, Abaroako urteko batzarrean. Riviere presidenteak parte hartzeko dei egin die elkarteko bazkideei: "Dituzten galdera, zalantza eta kezka guztiak plantea ditzatela batzarrean; gu ahalegindu egingo gara erantzuten. Hobe batzarrean galdetu beste edozein lekutan komentatu baino".

Bestalde, eskerrak eman gura dizkio Abaroako zuzendaritza taldeari aurten egindako lanarengatik: "Daukagun lekua urria izanda eta modu txarrean egonda ere, ahalegindu gara elkartearen ekintza guztiak egiten, eta, hori dela eta, egindako lana eskertu egin gura diot zuzendaritzari".

## oharrak

EMAKUMEEN EGUNA

**> Errezitaldia**

Errezitaldia eta emakume saharararren egoera berbagai izango dute eguaztenean, martxoaren 17an, Kulturateko areto nagusian. Martxoaren 8ko ekitaldien barruan Fatma Galiaren *Nada es eterno* liburua ere aurkeztuko dute. 19:00etarako egin dute hitzordua.

NAGUSIAK

**> Sagardotegira irteera**

Uribarriko egoitzako bazkideek eguaztenean irteera egingo dute, sagardotegira. Dagoeneko 104 lagunek eman dute izena. Bi autobus aterako dira Arrasatetik Aginagara. Bide batez, Uribarritik jakinarazi dute zenbait sagardotegik eskaintza bereziak izaten dituztela pertsona nagusiendako; betiere, aste barruan joaten badira.

ERAKUSKETA

**> Bide publikoak**

Oraingo astean ere izango dira Sendoa taldeko teknikariak bide publikoen erakusketan azalpenak ematen. Martitzenean eta eguaztenean egongo dira.

Urteurrenaren egun berean, etzi, egingo dute ospakizun ekitaldi berezia; 19:30ean izango da, elkartean

Hamaika ekitaldi prestatu dituzte ekainera arte: adibidez, hitzaldiak, jardunaldiak eta mendi irteerak

**JENDARTEA** > ELKARTE GASTRONOMIKOAK

# Eguaztenean 75 urte beteko ditu Danok-Bat elkarteak; egitarau zabala dute ekainera arte

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
1935eko martxoaren 17an sortu zen Danok-Bat, eta elkartekoek atera duten ospakizun egitarauan jakinarazi dutenez, *Aurrera bolie!*. Izan ere, ospakizun astea izango du Danok-Bat elkarte gastronomiko kulturalak, 75. urte beteko dituzte-eta eguaztenean. Ospakizun ekitaldia etzi, eguaztena, egingo dute: ohorezko bazkideak omenduko dituzte eta ondoren, Juanma Saezek egindako elkartearen ereserkia aurkeztuko dute.

**EKAINERA ARTE OSPATZEN**
Martxoko azken ekitaldia bazkideen arteko bazkaria izango da, hilaren 27an. Izena emateko azken eguna martxoaren 21a izango da.

Baina 75 urte ez dira egunero betetzen, eta Danok-Bat elkarteak behar den moduan ospatuko du. Izan ere, asteon hasi eta ekain amaierara arte, hamaika ekitaldi antolatu dituzte: hitzaldiak, jardunaldiak, mendi irteerak, txangoak, mus txapelketak... Zorionak eta urte askotarako, beraz.



1935eko martxoan eratu zen Danok-Bat elkarte gastronomiko kulturala. Irudian, bazkide-eratzaileen argazkia. DANOK-BAT

## Martxoko egitaraua

**17, eguaztena**
**19:30** 75. urteurrenaren ospakizuna elkartean: ohorezko bazkideei omenaldia eta elkartearen ereserkiaren aurkezpena. Azkenik, Txorbela otxoteak girotutako luncha.

**21, domeka**
**11:00** Hildako bazkideen aldeko meza, San Juan bataiatzailea parrokian.

**24, eguaztena**
**19:30** Zigarro puruei buruzko hitzaldia. Ekitaldi irekia, baina aurrez eman beharko da izena.

**27, zapatua**
**14:30** Bazkideen arteko bazkaria. 13:00etan triki-poteoa egingo dute. Izena emateko azken eguna, martxoaren 21a.

**AISIALDIA** > URPEKARITZA

# Urpekari tituluduna izateko aukera emango du Aukeak

Nazioartean urpekaritzan aritzea ahalbidetzen duen 'Open water driver' ikastaroa eskainiko du Aukeak, KSUB zentroaren laguntzaz; ikastaroa apirilaren 12an hasiko da




Itsaso zabalean egingo diren lau praktikendako Getariako portutik irtengo da itsasontzia. GOIENKARIA

**J.B.** > ARRASATE
Aukea kirol erakundeak urpekaritza ere badu eskaintzen artean. Izan ere, KSUB urpekaritza zentroak antolatzen duen urpekaritza ikastaro bereziarekin bat egin, eta nazioarteko edozein uretan urpekaritzan aritzeko *Open water driver* deritzon titulua ateratzeko aukera eskainiko die arrasatearrei. Bada, uretako sakontasunak eskaintzen duen lasaitasuna zer den ezagutu eta, gainera, munduko edozein txokotan lasaitasun horretaz nola gozatu ikasteko aukera izango du ikastaroan izena ematen duenak. Horretarako, *ksub@ksub.net* helbide elektronikora honako datuak bidali behar dira: izen-abizenak, adina, pisua, altuera, hanka-zenbakia eta telefonoa. Eta gauza bera egin daiteke 943 14 01 85 telefonora deituta.

Ikastaroaren prezioa honakoa da: kiroldegiko bazkideendako, 370 euro eta besteendako, 390 euro. Gutxienez 12 urte izan beharko dira.

**TEORIA ETA PRAKTIKA**
Urpekaritzari buruzko bost eskola teoriko, igerilekuko bost modulu eta itsaso zabalean lau praktika egingo dira ikastaroan.

> AISIALDIA

### Aste Santurako ere irteera antolatu du Txatxilipurdik

Pazko asterako –apirilak 9, 10 eta 11– Elantxobeko aterpetxera irteera antolatu du Txatxilipurdik. 12 eta 14 urte arteko gazteei zuzenduta, izena ematen lehenak direnak bakarrik joango dira, izenematea mugatua da-eta. Txatxilipurdira edo gazte txokoetara jo beharko du interesatuak; prezioa da 35 euro. Gurasoekin bilera egingo da guztia zehazteko.

> DANTZA

### Txikitxu-Arrostaitz taldearen urteurrena, taldekide guztiendako

Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak urteurren bikoitza ospatuko du (Txikitxuk 40 urte, eta Arrostaitzek 20 urte). Hala, taldekide izandakoak deitu dituzte ospakizunetan parte har dezaten. Hiru aukera daude izena emateko: 679 23 21 91 telefonora deituta (18:00- 20:00), *txikitxuarrostaitz@gmail.com* helbide elektronikora mezua bidaliz edo astean zehar dantza lokalera gerturatuz. Azken eguna apirilaren 1a da.



Jai batzordeko zortzi kide aurreko martitzenean, martxoaren 9an, egindako batzarrean. JAI BATZORDEA

**JENDARTEA** > KULTURA

# Jai batzordeko kideek bertan parte hartzeko gonbita egin dute

## Mendekoste jaiak prestatzen dihardute eta hurrengo batzarra bihar, martxoak 16, egingo dute

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Jai batzordeak buru-belarri dihardu azken asteetan. Mendekoste jaiak hurbiltzen ari dira eta indarrak horretan jarrita dituzte: Mendekoste jaietako egitaraua antolatzeko lanean dihardute. Edurne Korta Kultura teknikariaren esanetan, egitarau hori "martxo bukaerarako zehaztuta egotea komeni da"; hortaz, ez zaie denbora luzerik geratzen azkeneko erabakiak hartu eta egitaraua ixten joateko.

**URTE OSOKO LANA**
Urte osoan egiten du lan Jai batzordeak eta, normalean, hilean birritan batzartzen dira, hamabostean behin, hain justu. Hala eta guztiz ere, Mendekosteak hurbildu ahala, "maiztasuna areagotu egiten da eta astero" batzen direla azaldu du Kortak. Hain justu ere, dinamika horretan dihardu Jai batzordeak azken hilabetean, astean behin batzartzen.

**HERRITARREN PARTE-HARTZEA**
Gaur egun dozena bat lagunek osatzen dute batzordea. Kultura zinegotzi eta teknikariarekin batera, batzordean daudeTxosna batzordeko ordezkariak, Erraldoi Konpartsakoak, Zezen Zale elkartekoak eta baita inongo talderik ordezkatzen ez duten herritarrak ere. Kortaren esanetan, zenbat eta herritar gehiago joan batzarretara, orduan eta aberasgarriagoak eta emankorragoak izango dira: "Ideia berri eta fresko gehiago jasoko dira; betiere, kontuan izanda helburua dela ahalik eta jai egitarau osatuena egitea".

Horrekin guztiarekin, hurrengo batzarra bihar, martxoak 16, egingo dute, 20:00etan, kultura etxean, eta herritarrei parte hartzeko gonbita egin diete Jai batzordean lanean dabiltzan lagunek.

**AURREKONTUAN JAITSIERA**
Krisiaren eragina jaietara ere iritsiko da eta Mendekosteetako aurrekontuak murrizketa izango du. Hori horrela, Jai batzordean garbi daukate "herritarren partehartzean oinarritu" behar direla jaiak; hain justu ere, "herritarrek herritarrendako antolatutako ekitaldiak" izan behar dira egitarauaren oinarria, Edurne Kortaren esanetan.

Gainera, halakoek arrakasta handia izaten dute, eta horren adibide dira iazko Pazkoetan egindako koadrilen arteko herri kirolak eta rock maratoia. Lehenengoa herritar talde batek antolatu zuen eta hainbat koadrilak parte-hartzeaz gain, herritar ugari batu zen Irala kalera norgehiagoka ikustera. Rock maratoiari dagokionez, Txosna batzordeak antolatu zuen eta horrek ere jarraipen handia izan zuen. Kultura teknikariak esan duenez, aurten ere egongo da rock maratoia eta koadrilen arteko herri kirol probak egotea ere nahiko lukete.

Horrez guztiaz gain, txosnak Bideberrin jarriko dituzte, ohi bezala eta aurten ere ez dira faltako egitarauan herri bazkaria –*catering*-a izango da eta ez paella erraldoia, iaz bezala– umeendako jolas parkea eta hainbat dantzaldi.

**JAIAK** > LEHIAKETA

# Pazkoetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Kultura Zerbitzuak

## Herrian erroldatutako edonork har dezake parte eta izenematea da apirilaren 13ra bitartean

**M.B.** > BERGARA
Pazkoetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Udaleko Kultura Zerbitzuak eta Bergaran erroldatutako edozeinek har dezake parte.

Kartelek 24x24 zentimetroko neurria izan beharko dute, eta formatu bertikala. Teknika librea erabili ahal izango da, baina derrigorrez honako testua eroan beharko du: *Pentekoste jaiak 2010 Bergara*.

**LANAK, ORIGINALAK**
Aurkeztutako lan guztiak originalak izan beharko dira, eta beste lehiaketa baten inoiz saritu gabeak. Udalak plagioa egon den zantzurik ikusten badu, sortutako kalteen aurrean kalteordainak eskatu ahal izango dizkio plagioaren egileari.

**AZKEN EGUNA APIRILAREN 13A**
Irabazleak 600 euro jasoko ditu, nahiz eta saria emateke ere gera daitekeen, epaimahaiak hala erabakiz gero. Kartelak aurkezteko azken eguna da apirilaren 13a, 13:00ak baino lehen, kultura etxean. Aurkezteko moduari dagokionez, kartelek ez dute egilearen nortasuna agerian utz dezakeen ezer izango. Atzealdean leloa dutela aurkeztuko dira. Horrekin batera, gutun-azal itxi baten kanpoko aldean leloa idatziko da eta barruan egilearen datuak sartuko dira.

Udalak egoki ikusiz gero, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa antolatu ahal izango du.

**NAROA IGARTZAREN LANAK**
Antzuolako argazkilariak Aroztegi aretoan dituen lanak hilaren 21era arte ikusi ahal izango dira, honako ordutegian: zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30 ordutegian eta domeketan, 12:00-14:00 ordutegian.

*Barneko lurraldea* erakusketarekin, ikusleen irudimena, dedukzioa eta fantasia piztea da antzuolararen helburua. 18 argazkik osatzen dute erakusketa: Ebroren deltan, Birmanian eta Frantzian ateratakoak. Duela bi urte egindako argazkiak dira, kolore gutxikoak –zeru lainotsu eta euritsuek ere badute protagonismoa.

**EUSKARA** > JARDUN ELKARTEA

# Berriketan egitasmorako izenematea ireki dute, ostera

## Euskaraz mintza praktika egin nahi dutenek Jardun elkartean eman dezakete izena

**M.B.** > BERGARA
Berriketan egitasmoan interesa dutenendako izenematea zabaldu dute berriz. Jardun euskara elkarteak, Udaleko Euskara Zerbitzuak, Udal Euskaltegiak eta AEK-k bultzatutako ekimena da, ingurune euskaldunak sortu, indartu eta zabaltzeko ahaleginean.

**EUSKARA BULTZATZEA HELBURU**
Ekimenaren helburua da euskara bultzatzea eta zabaltzea, lagun euskaldunak eskainiz, euskaraz ikasten ari direnei, ikasi dutenei edo hitz egiteko aukera eta ohitura txikia dutenei.

Hori horrela, euskaraz berba egiten duten boluntarioak euskara praktikatu nahi dutenekin elkartuz, euskaraz berba egitea errazten duen proiektua da Berriketan. Izan ere, erabiltzea da hizkuntza bat ondo ikasteko modurik onena, eta proiektu horrek hori ziurtatzen du; astean ordu batzuetan euskaldun berriak (euskaltegitik kanpo) euskal hiztunekin berriketan egotea.

**IZENEMATEA, JARDUNEN**
Egitasmoan parte hartzeko interesa dutenek Jardun elkartera jo dezakete (kultura etxea) edo 943 76 36 61 telefono zenbakira deitu (Maitane).

> ERAKUSKETA
### Asun Aizpururen margolanak daude ikusgai Nahikarin

Asun Agiriano margolari azpeitiarraren margolanak daude ikusgai Nahikari tabernan.

Agiriano 2006an hasi zen margotzen, Javier Sagarzazuren tailerrean, eta Nahikarin egunotan ikusgai dagoena da egiten duen lehenengo erakusketa. Erabiltzen duen teknika akuarela da eta irudikatzen ditu paisaiak eta etxeko altzariak, besteak beste.

Azpeitiko margolariaren erakusketa ikusgai egongo da martxo osoan barrena, tabernako ordutegian.

> IKASTAROA
### Mendekotasuna duten nagusiak zaintzen ikasteko ikastaroa

*Mendekotasuna duten pertsona nagusien zaintza: jarrera eta gaitasunak hobetu, eurak zein norbere burua hobeto zaintzeko* delako ikastaroa antolatu du Bizikasi erakundeak. Apirilaren 20an hasi eta maiatzaren 26ra arte iraungo du, martitzenetik eguenera, 17:30-18:30 ordutegian –azkeneko bi egunak 19:30 arte–. Ikastaroa doan izango da. Izena emateko deitu 943 76 93 94 (Miren) zenbakira edo idatzi mezua *info@bizikasi.com* helbidera.

> KULTURA
### Remi Bezancon-en komedia dramatikoa zineklubean

Zabalotegiko zineklubaren barruan, hilaren 18an, eguena, Remi Bezancon zuzendari frantziarraren *El primer día del resto de tu vida* komedia dramatikoa ikusteko aukera egongo da.

20:00etan izango da emanaldia eta sarrerak bi euro balio du. Leihatila saioa baino ordubete lehenago zabalduko dute.

Hain justu ere, horixe izango da Zabalotegiko zineklubeko martxoko azkeneko emanaldia.

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Udalak enkantera atera ditu baja eman nahi dien Land Rover eta Opel Rascal autoak

Lehenengoa 1986. urtekoa da eta bigarrena 1991koa, biak ala biak, furgoneta mistoak; eskariak egiteko epea zabalik dago hilaren 23ra arte

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udalak baja eman nahi dien bi auto eskualdatzeko baldintzak onartu dituzte. Ibilgailuak dira 1986. urteko Land Rover ibilgailua eta 1991ko Opel Rascal ibilgailua eta eskuratu ahal izango ditu herrian erroldatuta dagoen adinez nagusiko edozeinek; betiere, baldintzak jasotakoa jarraituz.

Eskaera orriak eta baldintzak eskuragarri daude udaletxeko Idazkaritzan eta eskariak aurkezteko epea bukatuko da martxoaren 23ko 13:30ean. Bestalde, eskariok aurkezteko derrigorrezkoa izango da Udalarekin zorrik ez izatea.

**HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK**

Autoa hartzen duenak autoa bere izenean jartzeko beharrezkoak diren tramiteak egin beharko ditu eta horrek dakarren kostua ere bere gain hartuko du. Gainera, Udalak autoa gordeta duen lekutik atera beharko du, baina jaso aurretik, titularitate aldaketa eginda eta autoa bere izenean izan beharko ditu. Horrekin batera, 15 eguneko epean erretiratu beharko du.

Epealdi horretan autoa erretiratu ahal izateko eskatzen diren baldintza guztiak bete direla ziurtatzen ez baldin bada, erabakia bertan behera lagako du Udalak.

**PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

Interesa dutenen artean proposamen ekonomiko altuena egiten duenari egingo zaio esleipena. Hala ere, inork ez balu eskaintza ekonomikorik egingo, interesa azaldu duten guztien artean zozketa egingo da martxoaren 24an, 12:00etan, udaletxean.

**Autoen ezaugarriak**

**LAND ROVER IBILGAILUA**
- **> Matrikula:** SS 2948 W.
- **> Urtea:** 1986.
- **> Mota:** Furgoneta mistoa.
- **> Modeloa:** Santana 88 (normala).
- **> IAI:** 2009ko apirilean (akats arinak).

**OPEL RASCAL IBILGAILUA**
- **> Matrikula:** SS 4943 AK.
- **> Urtea:** 1991.
- **> Mota:** Furgoneta mistoa.
- **> Modeloa:** Rascal.
- **> Orrialdeak:** 2009ko azaroan.

**AUTOAK IKUS DAITEZKE**

Autoak ikusi nahi dituenak badauka aukera eta horretarako aurrez egin beharko du hitzordua Udaltzaingoan. Kontuan izan behar da, bestalde, Udalak ez duela inongo konponketarik ezta hobekuntzarik ere egingo autoetan.



BERGARAKO TXIRRINDULARI TALDEA

## Gogotsu hasi dute denboraldia zikloturistek

Aurreko domekan, martxoaren 7an, hasi zuten denboraldia Bergarako txirrindulari taldeko zikloturistek, eta, ohiturari jarraituz, Dorletako Amarengana joan ziren lore eskaintza egitera, denboraldi osoan barrena ondo zain ditzan.

Hurrengo irteera datorren domekan, martxoaren 21ean, egingo dute. 09:00etan abiatuko dira, San Martin plazatik, eta 65 kilometroko ibilbidea egingo dute; honako hau, hain justu ere: Bergara-Udana-Aizpurutxo-Gorla-Bergara.

Emakumeendako irteerak ere antolatu dituzte denboraldi honetan; hiru, hain zuzen. Baina interesa duten emakumeeek itxaron egin beharko dute pixka bat, lehenengoa apirilaren 25ean izango da-eta.

## oharrak

HITZALDIA
**> Iparradea berbagai historia hitzaldi sortaren barruan**

Udalak Euskal Herriko historiaren gainean antolatutako hitzaldi sortaren barruan, *Lapurdi, Baxenafarre eta Zuberoa, Frantziapean* delako hitzaldia egingo du Antton Kurutxarri historialariak. Martxoaren 17an izango da, eguaztenean, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

ERRETIRATUAK
**> San Joxepeko zuzendaritzarako izenematea zabalik**

Hilaren 24ko urteko batzarrean zuzendaritzako hiru kide berrituko dituzte. Hori horrela, izenematea zabaldu dute, hilaren 14ra arte, hautagaiek euren burua aurkezteko. San Joxepe elkarteko zuzendaritza batzordeak bazkide guztiei egin nahi die dei eta parte hartzera gonbidatu ere bai. Martxoaren 15ean hautagaien zerrenda emango dute aditzera eta hilaren 19ra arte ikusgai jarriko dute.

UDALA
**> Ibilgailuen zerga ordaintzeko epealdia zabalik dago**

Urtero bezala, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2010. urteko errolda onartu du Udalak. Zerga hori ordaintzeko borondatezko epea gaur, astelehena, hasiko da eta maiatzaren 31n bukatu. Egun horretatik aurrera errekarguarekin kobratuko dutela eman dute aditzera Udaleko iturriek.

ZOZKETA
**> Gabero abesbatzaren zenbaki sarituak atera dira**

Lehen saria, Lasan bi lagunendako afaria, egokitu zaio 7507 zenbakiari eta bigarrena, saski bat, 5474 zenbakiari. Sariak eskuratzeko deitu 627 36 83 70 telefono zenbakira edo idatzi *bergarakoorfeoia@gmail.com* helbidera.

KIROLA
**> Zabalik dago izenematea umeendako ur estimulazio ikastaroan**

6 eta 24 hilabete arteko umeendako da eta izenematea bukatuko da etzi, martxoak 17. Horretarako, deitu 943 77 70 95 telefono zenbakira edo bestela idatzi *agorrosin@bergara.net* helbide elektronikora.

Ander Izagirre > Kazetaria

# "Bolivian 845.000 adingabeko daude kontratu barik lanean; esklabo moduan dihardute"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Ander Izagirre (Donostia, 1976) kazetaria da. Eguenean egon zen Oñatiko euskaltegian Boliviako haur meatzarien egoeraz berba egiten. Irailean egon zen han, eta meatzeen barruan eta kanpoan lan egiten duten umeen egoera ezagutu zuen.**

**Ze asmorekin joan zinen Boliviara?**

Nire helburua Boliviako haur meatzarien gaineko erreportaje batzuk idaztea zen. Horretarako, aurretik, hainbat kontaktu egin nituen hango erakunde batekin.

**Eta heldu zinenean, ze aurkitu zenuen?**

Gogorrena izan zen ikustea haur meatzari asko daudela Bolivian, esklabo moduan lan egiten dutenak. Bereziki, Abigail Canaviri izeneko neskato baten kasua ezagutu nuen gertutik.

14 urte ditu, eta familiarendako dirua batzeko, gauetan, meatzean sartzen da. Potosiko Cerro Rico mendiaren meatzeetan sartzen da egunero, eta 1.500 metro egin behar ditu galeriaren ondoraino heltzeko. Hasieran, bi euro ordaintzen zizkioten egun bakoitzeko, baina orain ez du txanponik jasotzen, bere amak duen 3.000 dolarreko zorretik kentzen diotelako irabazi beharreko dirua.

**Haur horiek bizi duten egoera ikusirik, nola sentitu zinen?**

Ba, egia esan, barru guztiak nahastu zitzaizkidan. Muturreko egoeran bizi dira. Baina ez bakarrik meatzeetan lan egiten duten haurrak, baita meatzetik kanpo baina meatzearen inguruan lan egiten dutenak. Adibidez, batzuek eztainua tratatzen dute eta beste batzuek substantzia toxikoekin egiten dute lan.

Nazio Batuen Erakundeak 2009an kaleratutako txosten baten arabera, 845.000 adingabeko daude Bolivian inolako kontratu edo asegururik gabe lanean.

**Meatzeen barruan ibiltzeko aukera izan zenuen?**

Bai, pare bat aldiz sartu nintzen, eta barruko egoera lotsagarria da. Boliviako meatzaritza oso pobrea da, ez dute inolako teknologiarik. Lan egiteko modua ere ez da ohikoa: koadrilaka biltzen dira, ahal dutena egiteko.

Bestalde, meatzeen barruan ez dago inolako segurtasun neurririk. Meatzeetako eskoramenduak ustelduta eta okertuta daude. Bertako langileek arriskua ikusten dute, eta askotan istripuak egoten dira.



Ander Izagirre kazetaria, Bolivian egindako erretratuan. ANDER IZAGIRRE

**"Meatzean lan egiten duten ume guztiek muturreko egoera bizi dute"**

**"Meatze barruan ez dute segurtasunik, eskoramenduak ustelduta daude"**

**"Cepromin izeneko erakundeak jana ematen die eta etxeko-lanak egiten lagundu"**

Gainera, ez dute aireztatze sistemarik. Hango gasak toxikoak dira eta silikosia sorrarazten dute. Meatzari gehienak silikosiarekin hiltzen dira. Baina dirua behar dute ezinbestean, eta meatzeetan sartzen dira lanera egunero.

**Nork kontrolatzen ditu meatze horiek?**

Urte askotan estatuak kontrolatu izan ditu meatzeak, baina orain dela 25 urte pikutara joan zen sistema. Egun ez dago legerik, norberak gura duena egiten du. Langileak koadrilaka antolatzen dira, eta eurek zehazten dute lana nola banatu. Adibidez, 14 urteko umeak erabiltzen dituzte galeria estuetan sartu eta bertan lan egiteko.

Gainera, koadrilak dira dirua banatzen dutenak.

**Boliviako Gobernuak ez du eskua sartzen arazo horretan?**

Asmo onak ditutzte, eta gauzak hobetzeko gogo handia; baina ez daukate dirurik. Boliviako hiriburu La Pazko Lan Ministerioan hainbat elkarrizketa egin nituen, eta esan zidaten gobernuak, lehen aldiz, haur meatzarien lana kontrolatzeko diru apur bat duela. Lau ikuskatzaile jarri dituzte meatzeetan hango lanak kontrolatzeko. Baina Bolivia oso pobrea da eta arlo asko ditu hobetzeko.

**Haur meatzarien alde lan egiten duen erakunderik badago?**

Cepromin izeneko erakundea dago Bolivian, eta eurek egiten dute lan umeen alde. Janaria ematen diete, eta eskolako lanak egiten lagundu, besteak beste. Lan handia egiten dute.

KIROLA > MENDIA

# Mendi-eski irteera egingo dute mendi taldekoek hilaren 27an eta 28an

Tunel de Vielha-Hospital de Benasque zeharkaldia egingo dute; izenematea Aloña tabernan egin daiteke egubakoitzera arte

M.B. > OÑATI

Aloña Mendi Elkarteko mendi taldekoek mendi-eski irteera egingo dute hilaren 27an eta 28an. Hain zuzen ere, Tunel de Vielha-Hospital de Benasque ibilbidea egingo dute.

Interesatuek izenemate epea zabalik dute: Aloña Mendi tabernan egin behar dute inskripzioa egubakoitza baino lehen. Mendi saileko bazkideek 50 euro ordaindu behar dituzte eta ez bazkideek, 60 euro.

Irteera bi etapatan egingo dute. Lehen etapa 15 kilometrokoa izango da, eta Tunel de Vielhan hasi eta La Renclusa aterpetxean bukatuko dute. 1.400 metroko desnibela du lehen etapak.

Bigarren etapa La Renclusa aterpetxean hasi eta Hospital de Benasquen bukatuko dute, eta zortzi kilometro eta 975 metroko desnibela ditu.

**SEGURTASUN TRESNAK**

Antolatzaileek diote zapatuko irteera luzea izango dela, eta La Renclusa aterpetxean gaua pasatzeko, norberak aldatzeko arropak, janaria eta lo-zakua eroan beharko dituela. Bestalde, parte-hartzaileei segurtasunerako tresnak eroatea aholkatzen diete; besteak beste, elurjausien biktimak topatzeko aparailua. Gainera, pioletak, kranpoiak, eskiak eta botak eroan beharko dituzte.

IKASTAROA

## GPSaren gaineko ikastaro aurreratua, bihar hasita

Mendi taldeak GPSaren inguruko ikastaro aurreratua egingo du, bihar hasita. Hain zuzen ere, martxoko lau egunetan (bihar, etzi, 23an eta 25ean) egingo dute, 18:30etik 21:00etara arte, elkartearen egoitzan.

Aloñak antolatutako ikastaroan landuko dituzten gaiak dira: *Ibilbideak diseinatu Compe-GPS erabiliz*; *Programako datuak GPSra aldatu*; *GPSko datuak ordenagailura aldatu*; eta, *Internet erabili GPSrako informazioa lortzeko*. Gainera, praktikak egingo dituzte kalean.

Antolatzaileek esan dute parte-hartzaile bakoitzak GPSa eta ordenagailua eraman behar dituela.

Parte-hartzaileek, aurretik, oinarrizko GPS ikastaroa egin zuten, eta Compe-GPS programa ezagutzen dute.

## oharrak

HITZALDIA

**> Aitaita-amamendako hitzaldia erretiratuen elkartean**

Joxe Amiama psikologoak *Aitona-amona eta hezitzaile. Nola daramazu?* delako berbaldia egingo du bihar Pake Lekun, 17:00etan.

HITZALDIA

**> Krisialdi ekonomikoaren gaineko berbaldia**

Oñati Ezkerretik koalizioak hitzaldia antolatu du biharko. Mertxe Larrañaga EHUko Ekonomia Fakultateko irakasleak *Krisialdi ekonomikoa eta emakumeak* delako hitzaldia egingo du. Kultura etxean izango da, 19:00etan.

DEIALDIA

**> Antzerki emanaldia Pake Leku elkartean**

Udaberriari ongietorria emateko egitarauaren barruan, Gernikako erretiratuen elkarteko kideek *Dichosos los 40* antzezlana egingo dute eguaztenean. Hain zuzen ere, Santa Ana antzokian egingo dute emanaldia, 17:30ean.

DEIALDIA

**> Oñatin bizi diren aretxabaletarrek bazkaria egingo dute**

Etxe Aundi jatetxean bilduko dira apirilaren 17an. Bazkarira joan gura duten aretxabaletarrek Oñati, Aloña edo Arrano tabernetan eman behar dute izena martxoaren 29a baino lehen; edo bestela, 648 19 10 37 (Miren) zenbakira dei dezakete.

IKASTAROA

**> Erretiratuendako bitxigintza ikastaroa egingo dute**

Martxoaren 30ean hasi eta ekainaren 1a arte bitxigintza ikastaroa egingo dute erretiratuendako. Martitzenero bi orduko eskolak emango dituzte, 16:30etik 18:30era. Interesatuek Pake Lekun eman dezakete izena, astelehenetan, eguaztenetan edo egubakoitzetan 11:00etatik 13:00etara. Era berean, 943 78 09 61ra dei daiteke izena emateko edo informazioa eskatzeko.

**ARETXABALETA** > ERRETIRATUAK

# Astean aukeratuko du Basotxoko zuzendaritzak presidente berria

Eguaztenean egindako batzar orokorrean urteko gestio planaren berri eman zuten, eta nagusiak protagonista izatea da helburua



Basotxok eguaztenean egindako batzar orokorra. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Batzar orokorra egin zuen Basotxo erretiratuen elkarteak hilaren 10ean, 50 bat bazkideren aurrean. Iazko diru kontuak eta ekintza plana onartu eta aurtengo gestio planaren berri izan zuten.

**PERRETXIKO SAILA SORTZEKO**
Diru kontuei dagokienez larritzeko arrazoirik ez dagoela jakinarazi zuten, baina Udalak esandakoa baino diru gutxiago eman duela: 3.300 euro, hain zuzen. Gogorarazi zuten ekitaldi asko antolatu zituztela iaz, berrikuntzen artean kantu txapelketa, eta pozik azaldu ziren egindakoekin.

Bestalde, aurten abian jarri gura dituzten egitasmoen berri eman zuten, tartean honakoak: eztabaida taldeak, bazkideei eragiten dieten gaien gainean jarduteko; ekitaldi berrietarako taldeak, perretxikoen gainekoa, esaterako; karta eta mahai joko txapelketak; eta kantu taldea finkatzea, herrian ekitaldiak eskaintzeko.

Gainera, zuzendaritza batzordea berritu egingo dute egunotan; taldea utziko dute presidente Imanol Arantzabalek eta Javier Sanzek. Eta sartuko diren kide berriak hauek dira: Jesus Osinaga, Markeliñe Mendieta eta Jabier Urtzelai. Ardurak banatzeko batzarra eguenean, hilak 18, egingo dute.

**BIDAIARAKO ORAINDIK LEKUA**
Bestalde, gogorarazi dute apirilean Andaluziara egin gura duten bidaiarako oraindik lekua dagoela. Dagoeneko 41 lagunek eman dute izena eta beste hainbatendako dago lekua. Horretarako, gaur eta bihar pasatu behar da Basotxoko bulegotik (11:00-12:00).



ARRATE ARKAUZ

## Hotzari aurre eginez, oinez Aitzulora

Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatuta, familia giroko irteera egin zuten joan den astean hainbat aretxabaletarrek Oñati aldera. Hotz egin arren, txapeldunak legez joan ziren guztiak oinez, ume eta heldu. Aitzulora ailegatutakoan argazkia atera zuten paraje ikusgarria lekuko. Bazkari-pasada egin ostean Arrikrutzeko koba ezagutzeko aprobetxatu zuten arratsaldea, eta irteerari bukaera bikaina eman.

**ESKORIATZA** > LEHIAKETA

# Martxoaren 28an egingo dute IV. margo lehiaketa

Gaia Eskoriatza da eta edonork parte har dezake; erakusketa egingo dute lanekin

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA
Azken urteotan Udalak antolatzen duen aire zabaleko margo lehiaketa hilaren 28an izango da. Dagoeneko laugarren urtea da eta edonork parte hartu ahal izango du. Gaia Eskoriatza da.

**ERAKUSKETA LANEKIN**
Teknika librean egindako lanak izango dira eta oihalak goizean zigilatu beharko dituzte kultura etxean (09:00-11:00). Margolanak, ostera, eguerdian utzi beharko dira Ibarraundi museoan (13:00-14:00). Epaimahaiak –artista ezagunekin osatua– arratsaldean jakinaraziko du hartutako erabakia (18:30) eta ostean sari banaketa egingo dute Ibarraundin.

Erakusketa egingo dute gero margolanekin; martxoaren 28tik apirilaren 16ra, hain zuzen. Eta egileek lan horiek berreskuratzeko tartea apirilaren 19tik 29ra izango dute. Jaso ezean, antolatzaileen eskuetan geratuko dira.

**SARIAK SEI ONENENDAKO**
Sariak banatzerakoan bi talde egingo dituzte. 16 urtetik gorakoen artean: lehenengoari, 500 euro; bigarrenari, 250 euro; eta hirugarrenari, 150 euro. 16 urtetik beherakoen artean, ostera, margotzeko materiala emango diete hiru onenen egileei.

Antolatzaileek, gainera, bazkaria antolatu dute 16 urtetik gorako parte-hartzaile guztiendako.




Iazko margo lehiaketako lanen erakusketa. MIRIAN BITERI

## oharrak

BERBALDIA
**> Haurren elikadura berbagai bihar Luis Ezeizan**
Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak umeen elikadураren gaineko zalantzak argituko ditu bihar Luis Ezeiza herri eskolako areto nagusian (18:00). Edonork har dezake parte.

ERAKUSKETA
**> Argazki erakusketa ludotekan**
Eguenean, hilak 18, familiari eskainitako argazki erakusketa izango da Tortolis ludotekan (17:00).

KONTZERTUA
**> Bide Ertzean taldea Inkernun**
Tolosako taldeak *Leidor sessions* diskoa aurkeztuko du egubakoitzean Unibertsitateko aretoan. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu du eta sarrerak salgai dituzte Inkernu tabernan (5 euro).



KOOP. E.
EGUZKIGRAF
inprimategia
Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



Carlos Bujanda Fernandez de Pierola enologoa bere mahastietan. GOIENKARIA

**ELGETA** > ARDO-DASTATZEA

# Ardoaren eta osasunaren arteko lotura, berbagai

## Mediku baten ponentzia eta ardo-dastatzea egongo dira eguenean Fdez de Pierolaren eskutik

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Arabar Errioxan, Moreda herrian, aurkitzen da Fernandez de Pierola ardo upategia. Eguenean sendagile baten ponentzia eta ardo-dastatzea eskainiko ditu Espaloia kafe antzokian. Luis Bujanda Fernandez de Pierola Donostia Ospitaleko medikua da, eta upategiko arduradun Carlosen anaia. Ardo kontsumoa eta osasuna lotuko ditu bere ponentzian.

**ARDO-DASTATZEA**

Hitzaldiaren ostean, ardo-dastatzea egingo dute. Upategiko ardoak emango dituzte dastatzera. "Primiziak ere eramango ditugu", aurreratu du Bujanda Fernandez de Pierolak. "Tartean, Cyatho Verdejo zuria (Rueda), barrikan ondutako 2009ko Fdez. de Pierola zuria, 2004ko gura erreserba beltza edo 2005eko Virium erreserba berezia". 19:30ean egin dute hitzordua.

**ANTZUOLA**

# Zapatuan jokatuko da Uzarragako igoera

## 16:00etan hasiko dute proba gazte mailako ziklistek Olaran aurrean

**A.E.** > ANTZUOLA

Datorren zapatuan, hilaren 20an, jokatuko dute Uzarragako txirrindulari igoera. Aurtengoa 35. igoera izango da. Ohiko den moduan, gazte mailako txirrindulariek parte hartuko dute, 16:00etan hasita, Olaran etxean.

**81 KILOMETRO**

Aiastui elkarteak antolatutako lasterketa da Uzarragako igoera. Antzuolan hasi eta Zubillagara hiru bider joan beharko dute txirrindulariek; eta, azkeneko itzulian, Uzarragako igoerako azken kilometro gogorrei aurre egin beharko diete ziklistek, lasterketak guztira 81 kilometro izango ditu. Antolatzaileek esan dute 100 ziklista inguru izango direla irteera puntuan.

**ARAMAIO**

# Ipuin lehiaketa deitu du Txirritolak

## Lanak entregatzeko epea martxoaren 26ra arte izango da zabalik

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteak ipuin lehiaketa deitu du. Aramaion bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte eta adinaren arabera hainbat talde egingo dituzte. Lanak entregatzeko epea martxoaren 26ra arte dago zabalik eta sari banaketa, berriz, apirilaren 23an egingo dute. Argibide gehiago Txirritola euskara elkartean, 943 79 94 21 zenbakian jaso ditzakezue.

**BILERA UDALETXEAN ETZI**

Alkateak deituta etzi, eguaztena, bilera izango da udaletxean, 18:30ean. Besteak beste, AHTren lanen ondorioak eta errepidearen itxieraren ondoren Udalak izandako bilerak izango dituzte aztergai bertaratuek.

**LEINTZ GATZAGA**

# Semaforoak oraindik ez daude martxan

## Jarrita egon arren, abiadura murriztu eta kontuz pasatzeko diote bakarrik

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Orain hilabete pasa jarri zituzten Gatzagako errepidean semaforoak, sarrera nagusien inguruan: bi Gasteizera bidean eta bat Eskoriatzara bidean, geltoki parean. Aldundiko Errepide Sailak jarri zituen eta hilabetean proba egin gura zutela esan. Eusebio Villar alkateak jakinarazi du semaforo horiek oraindik ez daudela behar bezala martxan, laranja kolorea bakarrik dutelako: "Beste edozein semaforok bezala funtzionatuko dute martxan jartzerakoan, berde eta gorri jarrita".

Alkateak uste du negua pasatu arte itxarongo dutela semaforoak behar bezala jartzeko, baina Errepide Sailetik ez dute inolako jakinarazpenik jaso.





**Loiola**
"Azaroaren 8ak akordioaren eguna izan behar zuen. Jesusen Lagundiko arduradun gutxi batzuek ere bazekiten hori, eta horregatik zegoen egun hartan Arrupe Etxean ohi baino jesulagun gehiago: Jose Mari Etxeberria Loiolako burua ez ezik, Juan Miguel Arregi jesulagunen probintzia burua ere Loiolan zen, akordioa noiz itxiko zain, Erromako buruzagi nagusiarekin bitartekari lanak egiteko gertu. Xanpain botila batzuk freskatzen ere jarri zituzten, Arrupe Etxeko sukaldeko hozkailuan. Baina bilera uste baino luzeago joan zen eta, negoziazio gelatik orroren batzuk ere entzuten hasi zirenean, zerbait okertzen hasi zela ulertu zuten".

Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

2005 eta 2007 urte artean ETAren eta Espainiako Gobernuaren arteko solasaldiak izan ziren batetik, eta PSE-EE, EAJ eta Batasunaren artekoak, bestetik.

Prozesuaren kronika zehatza egin du Imanol Murua Uria kazetariak *Loiolako hegiak* liburuan, orain arte inor gutxik ezagutzen zituen datuak argituz.

Elgoibarko Txillarre baserritik, Loiolako basilikaraino, Oslo eta Genevako hoteletan barrena.

Loiolako negoziazioan protagonista izandako Jesus Egiguren, Iñigo Urkullu eta Arnaldo Otegiren testigantzak.

eskaintza berezia

BERRIAren eskutik 15 €

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ
berria

# Kirola



**> OÑATIKO DUATLOIA**
Patxi Vila eta Itsaso Leunda izan ziren azkarrenak **> 22-23**



**> GOL GABEKO PARTIDUA**
Ez Aretxabaleta eta ez Gernika ez ziren gola egiteko gauza izan **> 24**



**> MIKEL LABAKAREKIN**
Realeko kapitainarekin izan ginen Bergarako aurkezpenean **> 27**




Atzoko martxan eta ondorengo omenaldian parte hartu zuten mendizaleen talde-argazkia, bazkaldu ostean. JULIO CALLEJA

# Mendizaleen jaia eta goi mailako zaleei ohorea

**MENDI-FEDERAZIOA**
2009ko iraupen luzeko martxetako 6 finalistei omenaldia egin zieten

**MENDI MARTXA**
Intxorta eta Udalaitz artean ibili eta gero bazkaldu zuten Elgetan

**JON BEREZIBAR** > ELGETA

40 eta 50 kilometro arteko ibilbideak, gutxienez 2.000 metroko desnibelak eta 25 martxa. Ez da marka makala Euskal Herriko mendizale federatuek egiten dutena eta ahalegin hori omendu gura izan zuten domekan Elgetako Espaloian. 2009an antolatu zuten lehen aldiz martxa neurtuen ekimena eta atzokoan 6 finalistak izan ziren protagonista. Talde horretan sartzeko gutxienez 8 martxa egin behar izan dituzte eta botazio bidez bat aukeratu zuten atzo: Aintzane Fernandez bilbotarra.

Atzo ere ibilalditxoa egin behar izan zuten mendizaleek. Bazkari legea betea aurretik Intxorta eta Udalaitx ingurutik 24 kilometroko martxa egin zuten 91 federatuk eta ostean etorri zen bazkaria eta ekitaldia. Parte-hartzaileek diplomak jaso eta KOT etxeak opariak banatu zituen. Jai giro horretako helburu nagusia, omenaldiaz gain, "mendizaleen arteko harremanak estutzea" izan zen. Txomin Uriarte, Federazioko presidenteak azaltzen duenez, "sarri irteerak neketsuegiak izaten dira euren artean ezagutzeko", eta atzoko eguna horretarako baliatu zuten. Udaberriarekin batera ekingo diete 2010eko mendi irteerei, udazkenera arte.



**Aintzane Fernandez**
Bilbo

"Iazko gogorrena niretzat Bilbo eta Portugalete artekoa izan zen. Oso martxa politak egon ziren iaz eta nik 25 horietatik 16 egin ditut. Gaurko sariari dagokionez, zerbait espero nuen, entzuten zen zerbait, baina ohore handiz hartu dut. Finalisten artean egonda halere aukerak nituela banekien".



**Amadeo Ezpeleta**
Arrasate

"Mundu guztia animatuko banu ere, ez dira edonorentzako. Kontuan hartu behar da batez beste 47 kilometroko ibilaldiak direla, 2.200 - 2.300-eko gora beherekin. Hala ere, bigarren mailako martxak ere antolatu ohi dira asko jota 30 kilometrokoak eta hortik has daiteke".



**Txomin Uriarte**
Gasteiz

"Mendizaleen jaia eta mendi martxako finalistei omenaldia izan da gaurkoa. Ibilaldi gogorrak dira eta goi mailako kirolariak direla erakutsi dute. Hala ere, ibilaldi luze hauek gauza berria badira ere arrakasta handia izan dute, ehunetik gorako parte-hartzaile kopuruarekin".

**DUATLOIA** > OÑATIKO XIX. DUATLOIA, GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Iazko arantza aterata, Patxi

Emakumezkoetan Itsaso Leunda izan zen onena, hiru minutuko abantailarekin

Gaur (22:15), Goitb-ko 'Harmailatik' saioan Oñatiko duatloiaren gaineko saio berezia

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Iazko lasterketarekin alderatuta, protagonistak berdinak izanda ere –Patxi Vila eta Laurent Galinier, Capoferri gaixo zegoen– bestelako egoera bizi izan zuten zapatuko protagonistek: "Iaz nik estutu behar izan nuen aurretik zeuden atleta frantziarrak harrapatzeko, eta orain alderantziz izan da", adierazi zigun Patxi Vilak pozik, helmuga gurutzatu eta berehala: "Iazkoarekin alderatuz taktika aldatu dut, Deskargan hasierako bi kilometroetan erritmo itogarria jarri nahi izan dut, azenarioa mutur aurrean duen untxia garenean behar baino gehiago estutzen dugulako. Kontrarioak hor nahi nituen estutu, nekatzeko, eta mendateko azken kilometroan erasoa jo dut". Hortik Oñatira, 20 kilometroko erlojupekoa.



Patxi Vila lehena izan zen bizikletako sektorea egiten; azkar-azkar bizikleta plazan utzi eta korrika hasi zen. Ia bi minutuko abantaila zuen hor. JULIO CALLEJA

**GALINIER KORRIKA IKUSGARRI**

Korrikako lehenengo saioan, baina, frantziarra izan zen azenarioa, eta gainontzekoak hura harrapatu nahi zuten untxi taldea; tarte polita (40 segundo) atera zion atzetik zetorren taldetxoari –tartean ziren ibarreko Ander Agirre eta Iñaki Pelayo, erritmoari ondo eusten–.

Bizikletako tartea egiteko bakarrik joanda frantziarrak asko zuen galtzeko, haizeak gogor jotzen zuen-eta. Vilak Deskargan erasoa jo zuenean Legazpira bidean hiru atleta ziren hura harrapatu nahi zutenak: Galinier, Patxi Urizar eta Aritz Egea. Ondo esateko, Galinier zen Vila begiz jota zuena, besteek nahikoa zutelako erritmoari eusten. Iaz Vilari aurre egiteko *tandem* ederra osatu zuten Capoferrik eta Galinierrek, baina oraingoan herrikide gabe, Urizarrek eta Egeak ez zuten hirugarren batendako lan egiteko aparteko asmorik, ez gogorik, ez indarrik. Galinierrek oihu egiten zuen errelebo esker, eta beste biek ahal zutenean egiten zuten lan hori, baina ez zen nahikoa 600 metro aurrerago zihoan Berako mutila harrapatzeko.

**IA BI MINUTUKO ABANTAILAZ**

Patxi Vilak Oñatin azken lau kilometroak egiten hasi zenean ia bi minutuko abantaila zuen (1:53), eta nahikoa izan zen lasterketa irabazteko. Galinier azka-



**Iñaki Pelayo**
Oñatiko Triatloi Taldea

## "Oso pozik amaitu dut, Oñatikoa ondo egitea nuen helburu"

Oso pozik amaitu dut, karrera oso ona irten zaidalako. Azken bi urteotan antolaketa lanetan ibili naiz eta ez dut proba egin, eta aurten lasterketa txukuna egin nahi nuen. Korrikako saioan oso ondo ikusi dut nire burua, aurreko taldean ibiltzeko moduan baina bizikletan puntutxo bat gehiago behar nuen aurrerago egoteko.



**Markel Elortza**
Antxintxika Triatloi Taldea

## "Aurten hasi naiz bizikletan ibiltzen, eta hor badut zer hobetu"

Gustura ibili naiz, egin dudan bigarren duatloia da-eta. Korrika ondo moldatzen naiz, eta aurten hasi naiz bizikletan ibiltzen. Hala, hor igartzen dut oraindik asko daukadala hobetzeko, eta horrek asko motibatzen nau. Korrikako lehen saioa ondo egin dut, baina bizikletan ibili ostean berriro korrika egiten hastea...



**Gorka Anduaga**
Oñatiko Trialoi Taldea

## "Jende asko zebilen animatzen, herrian eta baita Deskargan"

Etxean korritzea beti da berezia, eta gustura geratu naiz egindako lasterketarekin [23 urtez azpikoetan hirugarren]. Lasterketan oso giro ona egon da, bai korrika ibili garenean Oñatiko erdialdean, eta Deskarga gainean ere jende asko zebilen animatzen. Jendea oso ondo portatu da, eta horrek asko laguntzen du.



**Iker Sologaistoa**
Oñati Triatloi Taldea

## "Etxetik boxesetara bidean gurpila zulatu zaidala uste dut"

Egia esan ez dut zorterik izan, bizikleta hartu dudanean konturatu naizelako gurpila zulatuta nuela. Etxean ondo nuen, baina antza boxesetara bidean zulatu zait. Plazan bertan, gurpila jendaurrean aldatzen, urduri... Azkena irten naiz, eta bizikletako tartea bakarrik egin dut; beno, lasterketa amaitzea lortu dut.



**Jon Aperribai**
Antxintxika Triatloi Taldea

## "Ez dut giharretako arazorik izan, eta gustura ibili naiz"

Helburua bete dut, nire mailan ibili nahi nuelako, giharretako arazorik izan barik, eta pozik geratu naiz, bai. Aurreneko lasterketa zen niretako, eta horrelakoetan arazo fisikoak egotea ohikoa izaten da, eta ez dut halakorik izan. Aurten tarteka duatloi eta triatloi batzuk egitea da nire asmoa.

# Vila azkarrena Oñatin

rra da, baina bizikletatik nekaneka eginda jaitsi zen; hala ere, 40 segundora murriztu zuen tartea, baina ordurako Vila Oñatiko plazan zen, eskuak altxatzen.

**LASTERKETA ARRAKASTATSUA**

Beste behin, Oñatiko Triatloi Taldekoek zeukatena eman zuten lasterketa antolatzen, eta beste behin, emaitza biribila izan zen –zapatukoa, gainera, Gipuzkoako txapelketa zen–. Oñatiarren artean Iñaki Pelayo (1:47:22) eta Gurutze Altuna (2:11:08) izan ziren azkarrenak, eta aipatzekoa 23 urtez azpikoen kategorian Gurutz Larreak (Antxintxika) eta Gorka Anduagak (Oñati Triatloi Taldea), lehenengo eta hirugarren sailkatu ziren-eta. Debagoieneko onena, baina, Ander Agirre (Antxintxika) izan zen –sailkapenean zortzigarren–.

Duatloi eta triatloietan puntaren puntan ibilitakoa den Aperribai ere ondo moldatu zen Deskargan gora, baita orain arte ziklismoan amateur mailan lehiatu den Kepa Varela ere: "Uste baino hobeto ohitu naiz korrika egitera, gustura nabil, eta horrenbeste urte txirrindularitzan ibili eta gero, orain ezin dut kirola kolpean utzi", adierazi zigun barrez Bergarakoak.

Etxera esku hutsik joan zenetako bat izan zen Iker Sologaistoa, baina garaikur galanta merezi zuen. Bizikleta hartu zuenean konturatu zen gurpila zulatuta zuela; errazena etxerako bidea hartzea zen, baina ez, kamara aldatu, ahal zuen ondoen puztu, eta 40 kilometro egin zituen bakarrik, haizearen kontra.



Oñatiko duatloiko gizonezko eta emakumezko onenak, podiumean. X.U.



Gorka Anduaga, bizikletako tartean. X.U.



Galinier, bizikleta hartu zuen unean. J.C

**Patxi Vila** > Lagunak-Saltoki

## "Korrikan hobetuta bizikleta ere freskoago hartzen dut orain"

X.U. > OÑATI

**Iaz moduan zapatuan bizikletan erakustaldia egin zuen Vilak, eta horrek eman zion garaipenerako tartea Berako atletari.**

**Iazko arantza aterata?**

Bai. Aurten ere banekien Oñatira Galinierrekin batera iritsiz gero ez nuela zereginik izango, korrika gehiago delako. Lehenengo sektorean korrika iaz baino gehiago estutu dut, harengandik gertuago egoteko eta bizikletan Deskargan nuena eta ez nuena eman dut. Azken 20 kilometroak erlojupekoa izango balitz moduan egin ditut, korrika lasai egiteko.

**Korrika geroago eta hobeto.**

Bai, iaz ere egin nituen duatloi batzuk eta bizikletan nenbileneko sasoia galdu barik, korrika geroago eta hobeto nabil, eta horrek esan



X.U.

nahi du gero bizikleta ere freskoago hartzen dela.

**Aurten ze asmo?**

Ikusteko dago. Oñatikoa egin nahi nuen, Euskal Herriko politena delako; hemendik aurrera astetik astera ikusiko dugu zer egin.

**Itsaso Leunda** > Garraitz kirol taldea

## "Sorpresa izan da, ondo entrenatzeko negu gogorra izan delako aurtengoa"

X.U. > OÑATI

**Itsaso Leundak ezin izan du denboraldia hobeto hasi, garaipen batekin. Harrituta geratu zen Oñatin aurkitutako giroarekin, lehenengoz izan zen-eta proban.**

**Ezin hobeto estreinatu zara Oñatin.**

Bai, txundituta geratu naiz Oñatin egon den giroarekin, asko gustatu zait lasterketa hau, ez nuelako ezagutzen, eta merezi du hona etortzea.

**Eta ezin hobeto estreinatu duzu denboraldia.**

Bai, garaipen honek izugarri motibatuko nau gogor entrenatzen jarraitzeko! Egia esan entrenatzeko oso negu gogorra izan da, lasterketarik ez da izan, eta oraindik igartzen dut lasterketan erritmo falta dudala.



GOIENKARIA

**Zelan bizi izan duzu lasterketa?**

Hasieran beldur handiarekin, ez nuen espero lehenengo geratzea, inondik inora. Hasierako korrikako saioan sufritu egin dut, baina bizikletan oso sentsazio onak izan ditut. Eta, amaieran sufritzera, dena ematera.

### sailkapenak

**LEHENENGO NESKAK**

| | |
|---|---|
| 1. Itsaso Leunda | 2:00:52 |
| 2. Irati Etxaburu | 2:03:19 |
| 3. Nerea Gambra | 2:09:48 |
| 4. Maider Oteiza | 2:11:08 |
| 5. Gurutze Altuna | 2:11:08 |
| 6. Leire Etxezarreta | 2:12:40 |
| 7. Idoia Garde | 2:15:27 |
| 8. Agurtzane Elorriaga | 2:17:03 |
| 9. Gemma Hernandez | 2:19:33 |
| 10. Aintxine Kerejeta | 2:19:50 |

**LEHENENGO MUTILAK**

| | |
|---|---|
| 1. Patxi Vila | 1:42:02 |
| 2. Laurent Galinier | 1:42:41 |
| 3. Patxi Urizar | 1:42:44 |
| 4. Aritz Egea | 1:42:51 |
| 5. Endika Gartzia | 1:44:31 |
| 6. Juan Carlos Nieva | 1:45:02 |
| 7. Sergio Gomez | 1:45:23 |
| 8. Ander Agirre | 1:45:23 |
| 9. Luis Maria Urizar | 1:45:59 |
| 10. Iñigo Eizagirre | 1:46:10 |

**GAZTEAK, MUTILAK**

| | |
|---|---|
| 1. Javier Fernandez | 2:00:25 |
| 2. Unai Nieto | 2:03:40 |
| 3. Juan Bilbao | 2:08:05 |
| 4. Imanol Tubia | 2:20:46 |

**23 URTEZ AZPIKOAK, GIZONEZK.**

| | |
|---|---|
| 1. Gurutz Larrea | 1:47:05 |
| 2. Iban Gil | 1:52:48 |
| 3. Gorka Anduaga | 1:58:30 |
| 4. Xabier Luis Urtzelai | 2:00:53 |
| 5. Mikel Atxutegi | 2:01:06 |
| 6. Unai Etxezarraga | 2:06:34 |
| 7. Alvaro Gonzalez | 2:06:50 |
| 8. Miguel Faunez | 2:12:23 |
| 9. Unai Etxezarraga | 2:13:15 |
| 10. Alvaro Gonzalez | 2:17:50 |

**DEBAGOIENDARRAK**

| | |
|---|---|
| 8. Ander Agirre | 1:45:59 |
| 18. Gurutz Larrea | 1:47:05 |
| 19. Iñaki Pelayo | 1:47:22 |
| 21. Jon Aperribai | 1:48:03 |
| 35. Kepa Varela | 1:49:48 |
| 39. Haritz Kortabarria | 1:50:30 |
| 50. Igor Lazkano | 1:52:14 |
| 51. Ricardo De Goñi | 1:52:15 |
| 63. Aitor Sotil | 1:53:56 |
| 64. Mikel Oliveri | 1:54:03 |
| 78. Jose Xabier Ugarte | 1:55:40 |
| 85. Mikel Errarte | 1:56:05 |
| 98. Miguel Angel Igartua | 1:57:25 |
| 104. Gorka Anduaga | 1:58:30 |
| 137. Xabier Luis Urtzelai | 2:00:53 |
| 154. Markel Elorza | 2:02:08 |
| 175. Zigor Urain | 2:04:10 |
| 190. Aritz Saidi | 2:05:30 |
| 191. Juan Miguel Coronado | 2:05:33 |
| 195. Iñigo Regueiro | 2:05:54 |
| 196. Xabier Biteri | 2:05:57 |
| 209. Gaizka Aranburu | 2:07:20 |
| 12. (emak.) Iratxe Landa | 2:28:30 |

**TALDEKA**

1. Lagunak Saltoki (gizon.)
2.Krafft Atletico San Sebastian (gizon.)
3.Antxintxika Triatloi Taldea (gizon.)

1. Urola KE (emakumezkoak)

**Oharra:** *www.triatloi.org* helbidetik ateratako sailkapenak.

**Oharra:** Oñatiko Triatloi Taldeko eta Antxintxika Triatloi Taldeko atleten denborak jaso ditugu debagoiendarren zerrendan. Independente moduan lasterka egin zuten bailarako atleten emaitzak ez ditugu jaso.

**HIRUGARREN MAILA** > 30. JARDUNALDIA

# Golik ez Aretxabaleta eta Gernika arteko partiduan, atzo

Etxekoenak izan ziren gol aukerarik onenak; puntu batekin konformatu behar UDA

Lopez Gernikako atezainak lan bikaina egin zuen atzo Ibarran jokatutako partiduan

UDA

**0-0**

GERNIKA

**UDA** > Gaizka, Andoni, Alain, Kerman, Gorka, Aritz (Borja, 77 min.) Julen, Raul, Oinatz, Ander (Aitor Perez, 66. min.) eta Iker Orueta (Iban, 86. min.).

**Gernika** > Lopez, Oribe, Iturraran, Iturri, Iriondo (Carbonell, 70. min.), Torrealdai, Urrutia (Garcia, 75. min.), Perez, Martin, Iker (Oxel, 46. min) eta Gonzalez.

**Epailea** > Etxarri, Abances eta Palencin marrazainen laguntzarekin. Etxekoen partetik Kerman, Aritz, Oinatz eta Julenek txartel horia ikusi zuten. Epailearen lana ez zen zaleen gustukoa izan.

**Bestelakoak** > Ohiko ikusleak Ibarran. Giro freskoa.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bisitari zaila zuen atzo UDAk; zazpigarren tokian dagoen Gernikaren bisita jaso zuten Igor Gordobilen mutilek Ibarran. Partidu bizia eskaini zuten bi taldeek lehenbiziko minututik.

Etxekoak ez ziren kikildu bizkaitarren aurrean eta beraienak izan ziren gol aukerarik onenak. Ez dago dudarik azken partiduko azken minutura arte borrokatuko duela UDAk mailari eusteko. Atzo ere lan ona egin zuten etxeko jokalariek, puntu bakar batekin konformatu behar izan ziren arren. Talderen batek garaipena eskuratzea merezi izan bazuen, UDA izan zen. Oinatz aurrelariak izan zituen gol aukerarik garbienak, baina Lopez Gernikako atezainak lan bikaina egin zuen atzoko partiduan. Aitor Perezek eta Iker Oruetak ere ez zuten ate aurrean asmatu. Igor Arenaza bigarren entrenatzailea pozik zegoen UDAk egindako partiduarekin.



Aretxabaletako Piru, kontrarioaren aurrean baloia babesten. JULIO CALLEJA

**BEASAINERA ASTEBURUAN**

Hurrengo jardunaldian Beasain taldeari bisita egingo diote aretxabaletarrek. Bolada onean dira beasaindarrak; Salvatierra *kolistari* 1-3 irabazi zioten zapatuan.

**OHOREZKO ERREG.**

## Aloñak hiruna berdindu etxean

Bergarak eta Mondrak galdu egin zuten etxean

**E.M.** > BERGARA

Aloña Mendik eta Beriok partidu entretenigarria eskaini zuten atzo, Azkoagainen. Azken minutuan, bi puntuk ihes egin zioten Aloñari. Edozelan ere, bi aldiz aurreratu zen Berio lehen zatian. 60. minutuan Iñigo Arregik binakoa egin zuen eta Gorka Bernalek, bigarren gola egin zuen 63. minutuan, Aloña 3-2 aurreratuz. Etxekoek denboraldiko partidurik onenetakoa jokatu zuten. Beriok ere gauza politak egin zituen, eta Etxegaraik 90. minutuan egindako golari esker, puntu bat eraman zuten Donostiara.

Bergarak 1-2 galdu zuen Ondarroaren aurka Agorrosinen. Iñaki Mujikak 1-2koa egin zuen etxekoendako 66. minutuan, baina berdinketa ez zen iritsi. Zarautz, berriz, erraz nagusitu zitzaion Mondrari Mojategin, 0-3.

Egin dugu salto

**Orain digitalera salto egin dugu:**

> **ARRASATEN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ARRASATEN, ARETXABALETAN,
ESKORIATZAN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
BERGARAN, OÑATIN, ANTZUOLAN,
ARAMAION ETA ELGETAN.

Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*




**Maider Arregi,** GOITBko kazetaria, Elgoibarko Mendatan zubisaltoa egin ondoren.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO LIGA

# Egiaren zain, Ford Mugarrik El Pilar gainditu zuen: 34-31

Bigarren zatian, hobeto moldatu ziren etxekoak; bost goleko abantaila izatera heldu ziren eta azkenean arazorik gabe irabazi zioten El Pilarri



Askartzaren kontra otsailean jokatutako partiduko une bat. ARTXIBOA

**E.M.** > BERGARA

Ford Mugarrik 34-31 irabazi zion zapatuan El Pilarri. Beraz, *etxeko lanak* eginda iritsiko da Arrasateko taldea egubakoitzeko *finalera*. Igoera faserako sailkatu ahal izateko, partidu erabakigarria jokatuko dute arrasatearrek San Jose egunean Iturripen, Egiaren aurka.

Zapatuan uste baino zailtasun gehiago izan zituen Ford Mugarrik bi puntuak eskuratzeko. Edu Orgaz entrenatzaileak defentsan hainbat aldaketa egindu zituen baina atzean ez ziren oso fin ibili etxekoak. El Pilarrek ondo aprobetxatu zituen arrasatearrek utzitako hutsuneak. Atsedenaldira, 18nako berdinketarekin iritsi ziren Ford Mugarri eta El Pilar. Bigarren zatian, hobeto moldatu zen etxeko taldea. Bost goleko abantaila izatera heldu ziren eta azkenean 34-31 nagusitu ziren.

**EGUBAKOITZEAN, GOIZEAN**

Esan bezala, Ford Mugarrik egubakoitzean hartuko du Egia, 11:30ean. Zaleei dei berezia egin diete taldeko arduradunek, denboraldiko partidurik garrantzitsuena izango baita. Joaneko partiduan 38-35 galdu zuen Ford Mugarrik. Egubakoitzean irabaziz gero, Ford Mugarrik eta Egiak bigarren postuan berdinduko lukete. Beste bi partidu geratuko zaizkie biei. Arrasatearren kasuan, Hondarribia (etxetik kanpo) eta Urola (etxean) izango dira azken bi arerioak.

> SASKIBALOIA

### Lehen mailan MUk 93-66 galdu du Bide Bideren kantxan; Aloñak denboraldiko beste errepaso bat

Jaitsiera faseko bigarren jardunaldian ere ezin izan dute Javi Zurbanoren mutilek punturik batu, sailkapenean ondoan zegoen Bide Bide taldearen kontra 93-66 galdu zuten-eta.

Maila autonomikoan Zubikoa gotorleko bilakatu da Aloña Mendirendako, eta Kraft Atleticok gogotik sufritu zuen oñatiarren etxean, gorritxoek denboraldiko beste errepaso bat eman zutenta (98-62). Emakumezkotan Eskoriatzako neskek gutxi behar izan zuten Cafes Aitonaren kantxan ezustekoa emateko (54-52).

> ESKUBALOIA

### Lehen territorialean Soraluce BKEk tartea atera dio Ereintzari, atzo Haritzari 29-22 irabazi ostean

Josetxo Muniategiren mutilendako jardunaldi biribila izan da asteburukoa. Batetik, atzo Labegaraietan jokatutako partiduan mahoneroek igoera fasera sailkatzeko *finaletako* bat gainditu zutelako, Eibarko Haritzari 29-22 irabazita. Horrekin batera, baina, hirugarren postua lortzeko borrokan dabilen Ereintzak estropezu egin du Donibaneren kantxan (25-19), bidea asko erraztuz.

Bestalde, kategorian azken postuan dagoen Izarraitz Aloña Mendik jipoia jaso zuen etxean, liderraren kontra (15-30).

> PILOTA

### Bergarako Lau t'erdiko txapelketako finalerdiak, martitzenean, 19:30ean hasita

Bergarako amateur mailako Soraluce Koop. Saria azken txanpan sartuko da martitzenean, finalerdiak jokatuko dituzte-eta (19.30). Joan den asteburuan Muguruzari irabazi ostean Antzuolakoak Onzalo izango du aurrean, eta joan den martitzenean esandakoaren arabera: "Maila handiko kontrarioa izango dut aurrean; ondo jokatu beharko dut aurrera egiteko". Bigarren partiduan Yoldi eta Larrañaga izango dira aurrez aurre.

## Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Amorebieta** | **60** | 30 |
| 2. **Real Sociedad B** | **57** | 30 |
| 3. **Elgoibar** | **50** | 30 |
| 4. **Portugalete** | **48** | 30 |
| 5. **Beasain** | **47** | 30 |
| 6. **Zamudio** | **47** | 30 |
| 7. **Gernika** | **45** | 30 |
| 8. **Amurrio** | **45** | 30 |
| 9. **Durango** | **44** | 30 |
| 10. **Basconia** | **43** | 30 |
| 11. **Arenas Getxo** | **40** | 30 |
| 12. **Zalla** | **39** | 30 |
| 13. **Leioa** | **38** | 30 |
| 14. **Lagun Onak** | **37** | 30 |
| 15. **Santurtzi** | **36** | 30 |
| 16. **Aretxabaleta** | **34** | 30 |
| 17. **Laudio** | **33** | 30 |
| 18. **Eibar B** | **33** | 30 |
| 19. **Retuerto Sport** | **25** | 30 |
| 20. **Salvatierra** | **9** | 30 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Elgoibar-Zamudio | 1-0 |
| Amorebieta-Santurtzi | 0-0 |
| Amurrio-Durango | 1-1 |
| **Aretxabaleta**-Gernika | 0-0 |
| Salvatierra-Beasain | 1-3 |
| Real Sociedad B-Arenas | 0-0 |
| Portugalete-Baskonia | 0-0 |
| Leioa-Zalla | 0-0 |
| Retuerto-Laudio | 0-0 |
| Eibar B-Lagun Onak | 0-0 |

**Hurrengoa**

Beasain-**Aretxabaleta**

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Pasajes** | **54** | 23 |
| 2. **Zarautz** | **51** | 23 |
| 3. **Aurrera Ondarroa** | **47** | 23 |
| 4. **Tolosa** | **42** | 23 |
| 5. **Oiartzun** | **38** | 23 |
| 6. **Idiazabal** | **37** | 24 |
| 7. **Aloña Mendi** | **34** | 23 |
| 8. **Bergara** | **32** | 23 |
| 9. **Trintxerpe** | **32** | 23 |
| 10. **Berio** | **31** | 23 |
| 11. **Ordizia** | **31** | 23 |
| 12. **Mondra** | **29** | 22 |
| 13. **Hernani** | **27** | 23 |
| 14. **Hondarribia** | **25** | 23 |
| 15. **EHU Vasconia** | **24** | 24 |
| 16. **Euskalduna** | **23** | 23 |
| 17. **Beti Gazte** | **22** | 24 |
| 18. **Real Union** | **20** | 23 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| **Aloña Mendi**-Berio | 3-3 |
| **Bergara**-Ondarroa | 1-2 |
| **Mondra**-Zarautz | 0-3 |
| Tolosa-Euskalduna | 2-0 |
| Hondarribia-Trintxerpe | 0-2 |
| Pasajes-EHU Vasconia | 4-1 |
| OiartzunOrdizia | 1-0 |
| Beti Gazte-Hernani | 1-0 |

**Hurrengoak**

**Aloña Mendi**-Beti Gazte
Berio-**Bergara**
Idiazabal-**Mondra**

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Hernani-Aretxabaleta | 1-2 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Laudio-Bergara | 4-0 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Urola-Antzuola | 3-0 |
| Aretxabaleta-Eibartarrak | 0-2 |
| **LEHEN ERREGIONALA, IGOERA** | |
| Mariño-Bergara | 5-0 |
| Trintxerpe-Mondra | 0-4 |
| **LEHEN ERREGIONALA, KOPA** | |
| UDA Arizmendi-Zestoa | 2-0 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA** | |
| Mondra-Orioko | ---- |
| Aloña Mendi-Union Txiki | 2-3 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA, IGOERA FASEA** | |
| Intxaurrondo-Aretxabaleta Arizmendi | 1-2 |
| **GAZTEAK, KOPA** | |
| Eibartarrak-Arizmendi | 4-1 |
| Bergara B-Soraluze | 4-1 |
| **EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA** | |
| Mondra-Añorga B | 5-1 |
| Amara Berri-Arizmendi | 3-2 |
| **EMAKUMEZKOAK, KOPA** | |
| Eibar-Bergara | 4-2 |

## Eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.** | |
| Ford Mugarri-El Pilar | 34-31 |
| **EUSKADIKO SENIORRAK, EMAKUME.** | |
| Verkol Aloña-Indupe Basauri | 20-20 |
| **EUSKADIKO KADETE, GIZON.** | |
| Aldaketa Ham.-Aloña Mendi | 34-29 |
| **EUSKADIKO KADETE, EMAK.** | |
| Usurbil-Verkol Aloña | 21-15 |
| **LEHEN TERRITORIAL MAILA** | |
| Soraluce BKE-Eibarko Haritz. | 29-22 |
| Izarraitz Aloña-Egia Reloj. | 15-30 |
| **FEDERAZIO SARIA** | |
| Soraluce BKE-Amenabar | 21-15 |
| Egia-Aloña Mendi | 36-30 |

## Saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| Bide Bide Ibiza-MU | 93-66 |
| **SENIOR AUTONOMIKOA** | |
| Aloña Mendi-Krafft Atco. | 98-62 |
| **SENIOR EMAKUMEZKOAK** | |
| Cafes Aitona-Eskoriatza | 54-52 |
| **SENIOR GIZON.** | |
| Soraluce BKE-Kevian Sport | 55-69 |
| Leihoak Zast.-Aloña Mendi | --- |
| Carnicas-MU | 76-63 |
| Cafes Aitona B-Soraluce BKE B | 38-75 |
| **GAZTEAK GIZON., PARTAIDETZA** | |
| Andraitz-Soraluce BKE | 76-50 |
| Oiartzun-MU B | 60-46 |
| Take Tolosa-Aloña Mendi | 69-66 |
| **GAZTEAK EMAK., ERRENDIM.** | |
| Añorga-Eskoriatza | 35-28 |

Harmailatik
Debagoieneko kirola GOITBn
Astelehenero 22:15ean.

Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!

**OÑATI**

# Pankarta eta guzti iritsi ziren gaztetxoak kiroldegira

**HIRU KIROL** Batzuk saskibaloian, besteak eskubaloian eta gainontzekoek areto futbolean jokatu zuten

**GOIZ OSOAN ZEHAR** Goizeko 09:15ean hasi eta 12:00ak arte ibili ziren zapatuan Eskola Kirolean

**GAZTETXO UGARI** Goizak aurrera egin ahala, ume kopurua hazten joan zen Zubikoa kiroldegian

**NAROA ODRIOZOLA**> OÑATI

Kirolarekin gozatu egiten dute geure gaztetxoek eta hala erakutsi ziguten beste behin, Zubikoa kiroldegian bildu zirenak.

Gogoz esnatzen dira umeak zapatu goizetan eta gosariak indarra ematen die partiduak irabazteko. Horregatik, kiroldegira heldu orduko jokatzeko irrikaz egoten dira. Kirola egin ez ezik, lagunekin egoten dira gaztetxoak eta elkarrekin jokatuz primeran pasatzen dute.

Zapatuko Eskola Kirola saioan, Zubikoako kantxetan hiru kirolez gozatzeko aukera izan zuten. 6.mailako neska-mutilak kantxa urdinean egon ziren areto futbolean jokatzen. Bitartean, kantxa berdean, 3.mailako ikasleak saskibaloian aritu ziren. Gainera, 4.mailako gaztetxoak ere parte hartu zuten zapatuko Eskola Kirola saioan. Horiek bi kantxetan izan ziren eskubaloian jokatzen. Baina Zubikoan ez ezik, Azkoagainen ere kirolaz gozatu zuten gaztetxoek. 5.mailakoek 8ko futbolean jokatu zuten-eta. Hori gutxi balitz, mendi irteera ere izan zuten gaztetxoek zapatuan. Gu areto futboleko eta saskibaloiko hainbat talderekin egon ginen.

**PANKARTA ETA GUZTI**

Hainbat izan ziren, euren taldea animatzeko asmoz, pankartekin iritsi zirenak kiroldegira. Hala ere, pankartez gain euren taldeen izena oihukatzen zutenak ere egon ziren. Eztarria ez urratzeko ura erosi zieten gaztetxoei.




N.O.

**Sapuak.** Zutik: Usue, Dayi, Itziar, Mirian eta Irene. Makurtuta: Leire, Haizea, Samira, Jone eta Ainhoa.




N.O.

**Erbiak.** Zutik: Amaia, Leire, Enara, Ane eta Karmele. Makurtuta: Aroa, Irati eta Gurutze



N.O.

**Katuak.** Zutik: Elene, Intza eta Hiart. Makurtuta: Alaitz eta Lorea




N.O.

**Pandak.** Zutik: Goreti, Maider, Amaia, eta Jone. Makurtuta: Ane, Nerea, Miren eta Usune.

## ZEIN DA ZUEN KIROLA GUSTUKOENA?




**June eta Maialen**
Iratxoak

Areto futbolean jokatzea tokatzen zitzaien June eta Maialeni eta jokatzen hasi aurretik izan ginen eurekin. Esan zigutenez, ez dute gogoko futbola izan ere, Iratxoak taldeko bi neska hauei eskubaloia gustatzen zaie gehien.



**Borja**
Euskaldunak

Borjari eskubaloian jokatzea tokatzen zitzaion zapatuan. Azaldu zigunez, saskibaloia nahiago du eta Eskola Kiroletik aparte, atletismoa eta txirrindularitzan dabil. Beraz, gaztetxo kirolzalea dugu Borja.



**Saioa eta Maider**
Jirafak

Jirafak taldeak saskibaloian jokatu zuen zapatuko saioan. Saioa eta Maiderrek adierazi zigutenez, eskubaloia dute gustuko. Saskibaloiari dagokionez, "saskibaloia ez zaigu gustatzen hain onak ez garelako" esan ziguten.




**Unai, Danel eta Auritz**
Euskadi

Hirukote hau eskubaloian aritu zen zapatuan. Esan zigutenez, hirurak futbola dute gustuko. Eskola Kiroletik aparte, Danelek igeriketa eta futbola egiten ditu eta Auritzek pilotan eta futbolean jokatzen du.



**Aimar, Ekain, Ander eta Urko**
Oltza eta Aloña

Oltza eta Aloña taldeetako mutil hauek batera iritsi ziren Zubikoara. Saskibaloian jokatzen hasi aurretik izan ginen eurekin. Esan zigutenez, futbola da euren kirolik gustukoena. Eskubaloia eta saskibaloia egiten dute.



Realeko jokalari Mikel Labaka eta Jon Ansotegi eguaztenean, Bergarako Real-zaleak taldeko aurkezpenean, realzale gaztetxo batekin. XABIER URTZELAI

**Mikel Labaka** > Realeko jokalaria

# "Ospakizunetan baino, zelan igo behar garen pentsatzen egin behar dugu indarra"

XABIER URTZELAI > BERGARA

**Eguaztenean, Bergarako Real-zaleak taldearen aurkezpenean tartetxo bat hartu genuen Realeko kapitainetako batekin berba egiteko, Mikel Labakarekin (Azpeitia, 1980). Azpeitiarrak dagoeneko zazpi denboraldi daramatza Realaren atzeko lerroa zaintzen, eta konturatu orduko taldeko beteranoetako baten bilakatu da.**

**Dagoeneko zazpi urte lehen taldean. Ofizio guztietan da zaila ilusioz jarraitzea.**

Egia esan lehenengo taldean nagoenetik urtero-urtero ilusioz jardun dut. Lehenago lehenengo mailari eustea zen genuen ilusioa, eta azken urteotan gora igotzeko ilusioarekin gabiltza lanean. Aurten, gainera, denboraldia ondo bideratuta dagoela jakinda eta igotzeko aukera handiak ditugula ikusita, ilusioz topera gabiltza.

**Gol bat egin edo partidu bat irabazten duzuenean beteranook, Realarekin kategoriaz jaitsi zinetenok, bereziki amorruz ospatzen duzue hori; bizkar gainean zama bat eramango bazenute moduan.**

Gol bat egiteak edo partidu bat irabazteak sekulako poztasuna ematen du, emaitza horren atzean lan handia dagoelako. Amorruarena... ez dakit, bai da egia Reala lehenengo mailan hartu genuenok taldea kategoria horretara itzultzea nahi dugula, badugula barruan sentsazio edo nahi hori.

Ez dakit Reala asko hobetuko dugun [barre] baina taldea hartutako lekuan utzi nahi dugula, bai.

**Aurten, gainera, minutuak jokatzen, golak egiten...**

Gustura egoteko ezinbestekoa da taldea ondo egotea, eta ondoren norberak astero-astero jokatu egiten badu logikoki askoz ere hobeto. Hala, aurten bi egoera horiek betetzen ari dira, igoera postuetan daramagulako urte osoa, eta pertsonalki ere jokatzeko aukera dezente izaten ari naizelako. Balorazioak, baina, urte amaieran egin behar dira, eta bistan da igotzen ez bagara balorazioa ez dela ona izango.

GOZATU ALA SUFRITU

**"Geratzen diren partidu kopurua handia da, eta batzuetan sufritu egingo dugu, seguru"**

NORABIDE BEREAN

**"Taldearekin batera zale eta kazetariek norabide berean indarra egitea oso garrantzitsua da"**

PRESTAKETA HANDI GABE

**"Helburua lortuz gero gauza gutxi prestatu beharko da Gipuzkoako bazter guztietan igoera modu ederrean ospatzeko"**

**Eskuko hatzekin ukitu daiteke igoera hori, baina oraindik ez dago eskuartean.**

Garbi dagoena da igoera ondo bideratuta dagoela baina oraindik hamabost partidu geratzen direla [Elkarrizketa Salamancaren partidua baino lehenago egindakoa da] eta edozer gerta daitekeela. Orain arteko bidean jarraitzen badugu asko okertu beharko lirateke gauzak helburua ez lortzeko.

Baina, jakin behar dugu hankak lurrean izaten, oraindik 45 puntu daudelako jokoan, eta puntu kopuru handia delako hori.

**Geratzen diren partidu horiek guztiak, gozatzeko ala sufritzeko dira?**

Norberaren araberakoa da hori. Egia da geratzen diren partidu horiek ere ez direla batere errazak izango, eta sufritzea ere tokatuko dela. Izan ere, goiko postuetan daudenen kontra jokatzen dugunean kontrarioak gure helburu bera izango du, eta behekoen kontra jokatzen dugunean aurrean izango ditugunak kategoriari eusteko lanean ibiliko dira.

Hala, kontrario guztiak ez dira berdinak izango, baina puntu guztiek berdin balio dute, hortan, partidu zailak izango ditugu, bai.

**Igoera lortuta, barnealdeko Realzaleek eskertuko lukete ospakizunak hiribururа ez murriztea.**

Taldean oraindik ez gara ospakizunetan berbetan hasi, ez dut uste horrelakoekin hasteko unea denik. Dena dela, igotzea lortuz gero asko prestatu gabe ere ospakizunak ederrak izango dira Gipuzkoako bazter guztietan.

Dena dela, igotzen badugu zelan ospatuko dugun pentsatzen ibili beharrean, zelan igo pentsatzen egin behar dugu indarra.

**Hala ere, *titular* ederra izango nuke Arantzazura oinutsik joango zaretela esanez gero.**

[Barre] Ez naiz ni horrelako promesen oso zalea.

**Serio jarrita, aurten egia da, aspaldiko partez, zale, jokalari, zuzendaritza... denak ari zaretela norabide batean bultza egiten, baita komunikabideak ere.**

Eta hori ere beharrezkoa da. Azken urteotan emaitzak ez dira batere onak izan, baina emaitzetatik haratago ere Realaren inguruan giro nahiko nahasia egon da. Azken batean ez zaleek eta ezta kazetariek ere ez dituzte partiduak jokatzen, baina oso garbi dago taldearen nondik norakoan asko lagundu dezaketela. Eta orain, denok zentzu berean indarra egiten ibiltzeak ere izugarri laguntzen du.

**Aurtengo denboraldian ezustea eman duen talde bat?**

Kategoria honetara igo berriak zirela jakinda, eta aurretik ze talde izan behar zuten jakin gabe ez nuke esango Cartagenak horrelako lan ona egin behar zuenik. Eta kontrara, esango nuke Murtzia dabilena baino askoz ere hobeto ibili behar zela.

**Amaitzeko, Lagun Onak taldean hasi zinen futbolean, eta hirugarren mailan, talde hori Aretxabaletarekin dabil lehian kategoriari eusteko.**

Bai, ahalegintzen naiz tarteka Lagun Onak taldea ikustera joaten, eta hor dago gaur egungo futbola zer den erakusten duen adibide garbia.

Iaz Bigarren B mailara igotzeko lehian ibili ziren, urte oso ona eginda, eta aurten berriz larri dabiltza hirugarren mailan. Baina, jokalari onak dituzte taldean, eta ez dut uste larritasunik pasako dutenik.

**OSASUNA** > PODOLOGIA

# Umeei oinetako egokiak janzteko hainbat aholku

Adin bakoitzerako dagokion oinetakoa aukeratzea garrantzitsua da haurraren garapen fisiko eta motorrerako, podologoaren iritziz

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Oinak ondo zaindu behar ditugula entzun dugu behin baino gehiagotan. Nagusiendako, gazteendako zein umeendako da garrantzitsua hankak ondo zaintzea, eta horretarako, garrantzitsua da oinetako aproposak, egokiak, janztea. Done Larrea podologoa ere bat dator horretan eta oinetako batek duen funtzioa ondo egin dezan ezaugarri batzuk bete behar dituela dio.

"Haurrentzako oinetako idealak arina, flexiblea eta erosoa izan behar du eta, era berean, oinaren formara eta haren beharretara egokitua egotea komeni da, oina estutu, nekatu eta deformatu gabe", azaldu du Done Larrea aretxabaletarrak.

**OINUTSIK IBILTZEA, ONA**

Hala ere, oinutsik ibiltzea ere ona dela dio Larreak: "Mesedegarria da ahal den heinean, behintzat, haurrak lurzoru irregularretan oinutsik ibiltzea; belarretan edo hondartzan, esaterako. Horrela, oinetakoekin gabiltzanean lantzen ez diren beste hainbat gihar mugitzen dira". Umeari oinetako egokia erosteko, haren adina izan behar da kontuan. "Adin bakoitzerako dagokion oinetakoa aukeratzea garrantzitsua da haurraren garapen fisiko eta motorrerako, oinen hazkuntza egokian lagunduko baitu".



Harritxoak sartuta zapatilaren zoluan. (LOLITA)*8

**GOMENDIOAK**

**JAIOTZETIK 7-8 HILABETERA**
- Oinek ez dute inongo oinetakorik behar. Beharrezkoa da oina ahal den askeen uztea.
- Oinak umearen instrumentu esploratzaile bihurtzen dira.

**8-12 HILABETE ARTEAN**
- Umea lau hankatan hasiko da eta oinetakoek babesa eta segurtasuna eman behar diote.
- Oinetakoen zolak arina, biguna eta malgua izan behar du.
- Punta borobildua eta errefortzuduna dutenak.

**12 HILABETEREKIN**
- Ez jarri kaña altuko oinetakoak umeari.
- Zolak meheak eta flexibleak, umeak lurra sentiarazteko.

**1-3 URTE BITARTEAN**
- Oinetakoek aldamenetan eta atzeko aldean errefortzuak izan behar dituzte.
- Oinetakoen zola sendoagoa eta ez irristakorra izatea komeni da. Takoiaren altura 4-6 mm artekoa.

**3 URTETIK 6-7 URTERA**
- Oinetakoek transpirazio onekoak, zola ez irristakorrekoak eta sendoagokoak izan behar dute.
- Taloian kontrafuerte ona eramatea garrantzitsua da egonkortasun eta irmotasun ona eman diezaien oinei.

**6-7 URTETIK 14 URTERA**
- Oinetakoen takoiek ez dute 1,5 cm baino gehiagokoak izan behar.
- Oinetako ezberdinak erabili, ez beti berdinak.
- Oinetakoen zolek urradurarekiko erresistenteak izan behar dute eta kolpe eta urraduretatik babestu behar dute oina.

**OSASUNA** > ALERGIAK

## Umeen alergiak gora egin dute azken urteotan

Ingurumeneko kutsadura eta gehiegizko higienea izan daitezke arrazoietako batzuk

**O.E.** > ARRASATE

Jabier Agirre pediatraren esanetan, alergiek gora egin dute azken urteotan, haurren alergiek bereziki. "Duela urte batzuk umeen artean apenas ikusi ere egiten ez ziren trastornoak –polen edo lore-hautsaren kontrako alergia, esaterako– inoiz baino usuagoak dira gaur egun".

Gorakada hori azaltzen saiatzen diren teoriak ugaritu egin diren arren, oraindik ez dago argi fenomeno horren zergatia, Agirreren esanetan. Hala ere, Agirrek baditu susmo bi: "Ingurumeneko kutsadura eta gaizki ulertutako gehiegizko higienea izan daitezke arrazoietako batzuk".

**ALERGIAK, ADINAREN ARABERA**

Alergien aurrean zer egin eta etxea babesteari buruzko aholkuak emateaz gain, adin bakoitzean alerdia ohikoenak zeintzuk diren eta ze sintoma eragiten dituzten kontatzen du Agirre pediatrak: "0 eta 2 urte artean: alergiarik usuenak elikagaiek sortutakoak dira, behiesneak, arrautzak, arrainak eta glutenak eragindakoak batez ere; 2 urtetik aurrera hasten dira agertzen arnas alergiak, hautseko akaroek, polenak edo animalien ileak eraginda gehienbat. Gainera, 2 urte egin aurretik elikadura alergiak jasaten dituzten haurren %80k arnas alergiak izan ohi dituzte pixka bat koxkortzen direnean".



Udaberriarekin batera polenizazioak gora egiten du. CONNIETH

**TEKNOLOGIA BERRIAK** > PREBENTZIOA

## Wi-fia ez dela arriskutsua dio ikerketa batek

Hezkuntza Sailak agindu du azterketa, eremu elektromagnetikoen neurketak egiteko

**O.E.** > ARRASATE

Wi-fi haririk gabeko teknologia eskola-umeen osasunerako arriskutsua ez dela baieztatu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak agindutako ikerketa batek. Ikerketaren ondorioen arabera, haririk gabeko teknologia horren "kaltegarritasunik eza" agerian uzten dute egindako neurketek. Isabel Zelaak zuzendutako sailak azpimarratu duenez, teknologia hori "erabat segurua" dela esan daiteke. Hezkuntza Sailak Telekomunikazio Ingeniarien Eskolari azterketa egiteko agindu zion, eremu elektromagnetikoen neurketak egiteko, Eskola 2.0 programan erabiliko den wi-fi teknologia osasunerako kaltegarria den edo ez egiaztatzeko.

Egitasmo horren bidez, Internet konexioa izango duen ordenagailu txiki bat edukiko dute LHko 5. mailako ikasleek. Horrela, 539 ikastetxe publikok eta hitzartutako 401 zentrok 18.000 ordenagailu eramangarri baino gehiago jasoko dituzte.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> GANBARA ETA GAUERO**
Oñatiko Ganbara eta Bergarako Gauero abesbatzek Bidaurreta eliza 'piztu' zuten **> 30**



**> PETER ETA KONPAINIA**
Hiru aretoak dar-dar egin zuen Peter and the test tube babyes taldearen emanaldiarekin **> 32**




**> BITTER HONEY**
Arrasateko musika taldeak 'Songs of love and destruction' izeneko diskoa kaleratu du **> 33**

# Ikus-entzunezkoetarako saltoa, bideogintza ikastaroarekin

**NERABEENDAKO**
12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago

**24 ORDU**
Bideogintzaren alor ezberdinak landuko dituzte ikastaroan

**TXOMIN MADINA** > OÑATI

Martxoaren 18an amaituko da Oñatiko gaztelekuan antolatu duten bideogintza ikastaroan izena emateko epea. 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutikoei dago zuzenduta ikastaroa eta Aitor Perosterena eta Kepa Aranburu izango dira irakasle lanetan arituko direnak.

Denera, 24 ordu izango ditu, eta ikus-entzunezkoak egiteko aintzat hartu behar diren hainbat arlo jorratuko dituzte, alderdi praktikoa eta teorikoa uztartuta. Hasiera baten, behintzat, ez dute parte-hartzaile kopuruan mugarik jarri. Izena emateko, gaztelekuko gazte informazio puntura edo topalekura joan behar dute interesa dutenek.

**BIDEOEN BELAUNALDIA**

Aitor Perosterenaren hitzetan, ikastaro horren jatorria gazteekin landutako beste proiektu baten aurki dezakegu. "Elkar-Hezi ikastetxearekin *Una experiencia lectora* izeneko proiektua landu genuen, eta egitasmo horretan ikus-entzunezkoek zeresan handia zuten", kontatu digu. Proiektu horrek lortutako emaitzekin gustura eta ibarrean horrelako beste eskaintzarik ez dagoela kontuan hartuta animatu ziren ikastaro hori antolatzera.

"Gaur egun, gainera, neska-mutiko gehienek ordenagailuak eta kamerak dituzte, esan dezakegu ikus-entzunezkoen belaunaldian bizi direla. Ikusi besterik ez dago *Youtube* eta halakoek gaztetxoen artean duten arrakasta", gaineratu du Perosterenak. Elementu ugari, beraz, ikastaroa arrakastatsu egiteko.

**TEORIA ETA PRAKTIKA**

Esan bezala, ikastaroak 24 orduko iraupena izango du eta irakasleek oinarrizko egitaraua prestatu dute, hiru zatitan banatutakoa. Asmoa izan da teoria eta praktika uztartzea.

Lehenengo zatian, kameraren funtzionamendua ikasiko dute, bideoak egiteko beharrezko materiala nola erabili.

Bigarren zatiak ere ikuspuntu teorikoa izango du. Kasu horretan, ikasiko dute ikus-entzunezkoen ekoizpen baten sor daitezkeen lanpostuak zeintzuk diren, eta baita lanpostu bakoitzaren eginbeharrak zeintzuk diren ere.

Hirugarren eta azken zatia izango da praktikoena. Behin puntu horretara helduta, gidoia nola egin ikasiko dute, gidoi hori nola garatu, eta ondoren, ikus-entzunezkoa ekoizten hasiko dira. Perosterenak azaldu digunez, ikasleen esku egongo da ikus-entzunezko horiek zer izango diren erabakitzea: "Film laburrak izan daitezke, edo bideoak, edo baita dokumentalak ere. Guk ez diegu zer egin aginduko, ikasleek eurek erabakiko dute".

Erabiliko duten materialari dagokionez, antolatzaileek kamera bat eta bideoak editatzeko ordenagailu bat jarriko dute. Asmoa da ikasleek etxean dituzten bideokamerak ere eramatea ikastarora, kamera haiei ahalik eta probetxu handien nola atera ikasteko. Egutegiaren antolaketa gaztetxoen parte-hartzearekin egin gura dute. Hori dela eta, martxoaren 18an (19:30) bertan bilera egingo dute ikastaroan izena eman duten guztiekin eta orduan adostuko dituzte ikastaroaren xehetasunak.

ESANAK

**"Ikus-entzunezkoen belaunaldia da gaur egungo gaztetxoena; 'Youtube' eta halakoen arrakasta ikusi besterik ez dago"**

**Aitor Perosterena** > Zinemagilea



Aitor Perosterena eta Kepa Aranburu, kamerarekin lanean.

AITOR PEROSTERENA

**IRAKASLEAK, ESKARMENTUDUNAK**

Aitor Perosterenak eta Kepa Aranburuk esperientzia handia dute ikus-entzunezkoetan. Perosterena bera Andoaingo Zinema eta Bideo Eskolan ikasitakoa da. Behin ikasketak amaitutakoan, Bartzelona aldera egin zuen eta berriz ere Oñatira bueltan Kepa Aranbururekin hainbat proiektu burutu ditu; besteak beste, *2.057* film laburra eta Aitor Mantxolarekin elkarlanean Corpus jaien inguruko dokumental bat. Oraindik ere lantzen dabiltza hori.

Batek daki hurrengo Spielberg, Bigelow edo Hitchcock-ek ez dituen lehen urratsak Oñatiko ikastaro horretan egingo!

## 'Una experiencia lectora', bere fruituak eman dituen proiektu interesgarria

Iaz burutu zuen Elkar Hezi ikastetxeak *Una experiencia lectora* egitasmoa eta koordinatzaile ibili zen Aitor Perosterena. Irakurzaletasuna sustatzeko proiektua izan zen, eta bertan, ikus-entzunezkoek berebiziko garrantzia izan zuten: ikasleek eta gurasoek aukeratutako liburu baten inguruan egindako gogoetak grabatu zituzten Oñatiko hainbat parajetan. Handik ateratako bideoak bigarren saria lortu zuen SM Argitaletxeko Fundazioaren lehiaketan.

Aipatu moduan, Perosterenak zuzendari lanak egin zituen eta ikasleak izan ziren, taldeka, filmazioaz, gidoiaz eta infografiaz arduratu zirenak. Zinemagilea gustura agertu da esperientziarekin: "Neska-mutikoek sekulako gogoa erakutsi zuten; prest egon ziren behar beste ordu sartzeko, nahiz eta eskolako orduetatik kanpo izan. Gurasoekin harremana sendotzeko ere baliagarria izan zela uste dut".

**KRONIKA** > GANBARA GAZTE ETA GAUERO ABESBATZAK

# Rocka eta samba hildakoak pizteko

**NON:** Bidaurreta elizan, Oñati.
**EGUNA:** Zapatua, martxoak 13.
**ZENBAT JENDE:** 80 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta laurden inguru.

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Atrebentzia handia egin zuten zapatuan Gabero eta Ganbarako gazteek. Bidaurreta eliza ezin ederragoan musika sakrotik sanbarako bidaia, sorpresaz betea. Hunkituz, harrituz, gozatuz eta txundituz, atrebentzia balentria bilakatu zuten eta musika erlijiosoari zapore berria ekarri, elizetako intsentsu eta hoztasunetik ihes, munduko zapore izpiritual bereziak aurkeztu zituzten kontzertu berezian. Agindu zuguten musika erlijiosoa begiratzeko beste modu bat ekarriko zigutela. Baina begirada bakarrik ez, entzuleak buruz-behera jarri zituzten. Zorabiorik ez zen egon, gozamenez txundititutakoen txalo bero, hunkituak, bai, ordea.

Bidaurretako kanpaiek jo eta hamar minutura hasi zen emanaldia. Aldareko erretaularen edertasuna nahikoa da kontenplazio izpiritualetarako eta, hain justu, entzuleak hala zeuzkaten ahots gazteek: zain, isilik. Mistizismo hori ondo baino hobeto baliatu zuten Ganbara Gaztekoek kandelak hartu eta erdiko pasillotik ahots zuri eta ederrekin hautsi zuten isiltasuna. Zerurik badago, gorako lehen urratsa egin zuten orduan. Belarriak adi eta gogoak poztuta.

Abesbatzetarako pieza modernoekin hasi ziren, garbi, akatsik gabe eta Leire Zelaiaren ahots gardenarekin, goi mailako interpretazioak izan ziren hasierakoak. Hotz zegoen eliza. Eztul bakar bat bera ere ez zen entzun.

Hain une ederren ostean eterri zen saltsa edota elizako murruak astintzen hasteko momentua. Jazz nahiz samba kutsuko meza kantuak proposatu zituzten Aitor Biainek gidatutako neska-mutikoek piano baten laguntzarekin. Ordura arte entzule guztiak *kieto* baina jazz doinuekin bat baino gehiago hasi zen burua lotsati astintzen erritmoari jarraituz. Berotzen joan zen giroa, zalantza barik.

**ROQUIEM?**

Bergarakoen, Gauerokoen, txanda iritsi zen gero eta hauek mundutik zeharreko bidaiarekin jarraitu zuten. Lehen geldialdia Afrikan eta ekuadorretik gertu; izpiritualitatea bizitzeko duten hain modu fisikoa Bidaurretara ekarrita. Txalo eta dantzekin, gospeletik gertuago, ereserki mistikoez baino, sakroaren ikuspegirik mundutarrena ekarri zuten. Onena baina Roquiemarekin etorri zen, rock requiema alegia, gitarra elektriko nahiz bateriarekin, hildakoak goratu eta bertan zeudenak astintzeko. Nere Ibarra sopranoa izan zuten lagun eta goia jo zuten Gauerokoek harekin, rock-requiemaren gailurra. Amaiera elektriko horrek aldarea ez bazuen astindu bertaratutakoek ziur ia jaustear utzi zuten erretaula txaloekin. Gehiegikeria hutsa da hori baina kontzertu erabat hunkigarri eta sorpresaz betea izan zenak ez du alferrikako puzte lanik eskatzen. Ikaragarri ederra izan zen, errepikatzeko modukoa. Bikaina.



Oñatiko Ganbara gazteko kideak, kontzertuaren hasieran. JULIO CALLEJA



**Amaia Igartua**
Bergara

"Kantu erlijiosoak askotan entzun eta abestu ditugu baina oraingoa oso desberdina izan da jazz eta rockarekin. Rock ukituko azkena izan da onena nire ustez".



**Begoña Urrestarazu**
Oñati

"Batek baino gehiagok komentatu digu zelan rockarekin abestutakoak ia malkoak eragitekoak zirela une askotan. Nahasketa izugarri polita izan da".



**Leire Zelaia**
Ganbara (Bakarlaria)

"Benetan gustura abestu dugun kantaldia izan da. Gure asmoa zen zerbait apur bat diferentea egitea eta azkenean polita atera dela uste dugu. Berezia izan da".

**KRONIKA** > BERGARAKO UDAL MUSIKA BANDA

# Domeka eguerdirako ezin hobeto, banda eta zinema



Bergarako Udal musika banda, domekan pilotalekuan. JULIO CALLEJA

**NON:** Bergarako pilotalekua.
**EGUNA:** Domeka, martxoak 14.
**ZENBAT JENDE:** Pilotalekua beteta
**IRAUPENA:** Ordu bete inguru.

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Ohikoa da Bergaran Bandak domeketan jotzea baina horrek ez dio ekitaldiari arrakasta apurrik ere kentzen. Atzo ere pilotalekua lepo eta errepertorio alai eta koloretsuaz gozatzeko prest bergararrak.

Etxeko pieza batekin ekin zioten atzo, martxa alai batekin, bandako zuzendari den Gonzalez Chirlaqueren pieza batekin, *Beti Lagunak*-ekin. Giroa alaituta, gozatzen jarraitzeko *The Spirit of Sequoia* etorri zen, pieza eder eta lasaia, basoetan inspirazioa hartzen duena momentu hunkigarriekin. Atzerriko egileen piezekin jarraituz *The Conquest of Paradise* joan zen hurrena, fantasiatik zinemara eta Cristobal Colon gogora ekartzera; Vangelisen pieza eder eta ezaguna.

**ZINEMAKO PIEZAK**

Beti izaten dira eskertzekoak bandaren kontzertuetan zinemari egindako keinuak. Soinu bandak beti dira ongi etorriak eta horretara dedikatutako bi une izan zituzten atzokoan. Bat Vangelisetik eta bigarrena *Cabaret* film ezagunarekin. Errepertorio ezin gozagarriagoa, hortaz, atzoko hitzordurako aukeratu zutena. Asmatzen dutenaren seinale ze frontoia betetzea lortzen dute.



*Eraman dotoretasuna*
*zure etxera*

gelatzz s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

**KRONIKA** > PETER & THE TEST TUBE BABIES ETA MATERIAL RECHAZADO

# Belaunaldi bi eta punkari ohore

**NON:** Hiru aretoa, Arrasate.
**EGUNA:** Egubakoitza, martxoak 12.
**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.



Peter and the test tube babies taldearen emanaldiko une bat. JULIO CALLEJA

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

"Belaunaldien talka" topiko nagi eta demasa erabilia izateaz gain musikan zentzua berehala galtzen du. Froga garbia da egubakoitzeko kontzertua.

Egia da Peter eta lagunak lehen kontzertuekin zebiltzan garaietan Material Rechazadoak ere lehen urratsetan ari zirela; baina oinez ikasten, kasu honetan. Ia 30 urte igaro dira eta Hiru aretoan oholtza partekatu duten unearen aurretik batzuek hasieretako errodun punk burleskoaren beterano nekaezin bilakatzeko denbora izan dute –9 disko apaletan jada eta kontaezinak diren zuzenekoak sorbalda gainean. Besteek, Arrasatekoek, denbora tarte horretan oinez bai baina baita ere gitarra eta bateria hartu eta erro horiek hartuta musika egiten ikasi dute. Amorru, itxaropen eta indarrez punk egiten ikasi dute, agian, *Mondra*ko hain modako soinuaz apartetxoago, erpin zorrotzagoekin, "punkyago" (beste topiko bat). Esan dugu baina, beterano eta gazteek –disko bakarra dute kalean Material Rechazadokoek– belaunaldien aurrez aurrekoa izan zutela baina urteek sortzen duten tartearengatik eta ez beste ezerengatik. Etxekoak hasi ziren noski. "Ohorea" izan zela dio Borja Perez baxu jotzaileak eta, halaxe, agur puntu bat ere izan zuen kontzertuari ekin zioten. Bateria jotzaileak, Arabok, utzi egingo du. Taldeak, jarraituko badute ere, etentxoa egingo du. Indarrez eta lagun artean jotako "geroartea".

**PROFESIONAL BAINA FRESKO**

Brightoneko bisitari aski ezagunen txanda heldu zen osten. Etxean jo barik ere etxean bezala egon ziren ingelesak euren jarraitzailez lepo baitzegoen aretoa. Batetik hori, eta, bestetik taldearen profesionaltasun eta jarrera bikaina kontuan hartuta, 30 urte errepidean daroan talde bati eska dakiokeen zuzenekoa eskaini zuten: akatsik gabea eta dibertigarria. Makinatxo bat disko atera eta gero, taldea errentez bizi daitekeen arren, aspaldiko kantuek lekua izan zuten baina gaurko egunean, euren buruen jabe, eta aurrera begira daudela erakutsi zuten Peterrek eta lagunek. Azpimarratzekoa da punk talde honen emaitza ze zuzeneko planteamenduan kontzertu neurtu eta profesionalak eskaintzen dituzte baina hor ez dute talka egiten generoak berak eskatzen duen bat-batekotasun eta freskotasunarekin. Punkarekin urteek emandakoa ere ez da alferrik.


Azkarate eta lagunak, egueneko grabaketan. BEGI_UHINAK

**GRABAKETA** > AZKAITER PELOX

## Zuzeneko bitan grabatu ditu disko berrirako abestiak

Bergaran eguenean eta zapatuan Orion grabatu ditu abestiak. Oraingo honetan talde izaera indartuko du

**J.B.** > BERGARA

Beti bezain egonezin, Unai Azkarate ala Azkaiter Pelox badabil saltsa berrietan. Hurrengo proiektua bigarren diskoa izango da, zuzenekoa, asteburu honetan grabatu dutena. Talde planteamenduarekin oraingoan, zuzenean grabatua eta soul eta funky zaporeei leku eginda, "Bergarako jaietarako prest" izan gura du musikariak disko berria. Momentuz grabaketak besterik ez ditu egin baina ez ohikoena den moduan. Zuzeneko bi grabatu ditu Azkaratek: lehena Bergaran eguen iluntzean Laino skate-parkean eta bigarren grabaketarako haren bigarren herria den Oriora joan da, Kalakari tabernara. Hitzordu bikoitzean baina Azkaiter Pelox ez da bakarrik egon, luxuzko lagun taldea elkartu du-eta disko berrirako. Hain zuzen, alboan izan ditu: Mikel Ilarduia (Aby Kem, bateria), Eñaut Martí (baxua), Amaia Azpiazuk (ahotsa), Raul Lozano Pikillo (gitarra eta ahotsa), Ebert Sanchezek (harmonika), Fernando Laskurainek (Mahaster River, gitarra) eta Asier Elortzak (Belceblues, tronpeta). Nahasketa eta masterizazio lanak geratzen zaizkio orain baina "patxadaz hartu" gura duela dio Azkaratek gauzak txukundu, akatsak zuzendu eta grabaketa berriak egiteko. Bergarako jaietarako prest eduki gura du disko berria.

> BIDEO-SORKUNTZA

### Arizmendiren BHKlip lehiaketako sari banaketa 25ean

Bizi zure ametsak lemarekin egin behar izan dituzte bideoklipak Arizmendiko ikasleek aurten bigarren aldiz antolatu duten lehiaketarako. Iazko harrera ona eta parte-hartze handia errepikatu guran, aurten, 15 bideo-lan musikal aurkeztu dituzte ikasleek eta, hain zuzen, lan horiek ikus daitezke *Arizmendi.eu*webgunean eta baita ere Youtube-n Arizmendi ikastolak webgune horretan duen kanalean (*youtube.com/user/arizmendiikastola*).

Lanak dagoeneko aurkeztuta eta ikusgai daude, eta hile honen 25an banatuko dituzte sariak Arrasaten, Arizmendi ikastolaren Arimazubi gunean (18:00etan).

> 'OPEN SESSIONS'

### Musika jotzeko agertokia zabalik Kai tabernan eguenean

Musika saio inprobisatua antolatu dute eguenerako (22:30) Bergarako Kai tabernan. *Saint Patrick's* da eguaztenean, irlandarren zaindariaren eguna eta, hain zuzen, Éiretik bertatik Sein musikariak egingo ditu zeremonia maisu lanak gaubelan. 70 eta 80ko hamarkadetako moldaketak joko ditu hark eta edonor batu ahalko zaio instrumentu akustikoekin. Hain zuzen horixe izango da baldintza bakarra: akustikoan jotzea. Interesa duenak egun gauean bertatik pasatu besterik ez dutela diote Kai tabernako arduradunek. Hortik *Open Session* izena, saio irekia, alegia. Behar den ekipamendu teknikoaz tabernakoak arduratuko dira.

> HAUR-ANTZERKIA

### Kalitate handiko txotxongilo lana zapatuan Amaian

La maniqué taldearen txotxongilo antzerki ikusgarria egongo da zapatuan Arrasateko Amaia antzokian (17:00). 5 urtetik gorakoentzako antzerkia da, musika, txotxongilo eta objektuekin egindako jolasek osatua.

Etxeko txikienei zuzenduriko lan honetan natura bera da protagonista nagusia eta Maite Arresek egingo ditu euskarazko narratzaile lanak. Lau urtaroen bidez sortzen diren elementuekin egiten du kontakizuna: haizea, elurra, euria, basoa, berba, izakiak... horiek guztiek sortzen dute musika eta baita ere antzezlanaren ardatza. Hazi txiki batek gorde dezakeen historia handia kontatzen da.

GURE TALDEAK

## Bitter Honey



Ezkerretik eskuinera, Mikel Otaegi, Borja Hernandez, Aitor Agirre eta Enaitz Etxeberria. JOSETXO ARANTZABAL

# "Disko entzungarria egitea zen gure erronka, eta lortu dugu"

Bitter Honey arrasatearrek 'Songs of love and destruction' izeneko diskoa kaleratu dute eta hilaren 26an aurkeztuko dute 3 aretoan

2009ko maiatzean grabatu zuten Urdulizko Tio Pete estudioan, eta nahasketak eta masterizazioa Dani Uleziarekin egin zituzten

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

**Bitter Honey arrasatearrek *Songs of love and destruction* diskoa kaleratu dute. Hard rock klasiko estiloko bederatzi kantu grabatu dituzte. Aitorrek, Enaitzek, Mikelek eta Borjak osatzen dute taldea. Eurek kontatu digute diskoaren ezaugarriak zeintzuk diren.**

**Gustura zaudete diskoarekin?**
Asko kostatu zaigu diskoa landu eta kaleratzea, prozesu luzea eta nekeza izan da. 2009ko maiatzean Urdulizko (Bizkaia) Tio Pete estudioetan grabatu genuen eta nahasketak eta masterizazioa Atarrabian (Nafarroa) egin genituen Dani Uleziaren estudioan. Baina bai, azkeneko emaitza ona dela uste dugu eta pozik gaude.

**Diskoa erosten duenak zer entzungo du?**
Diskoan bederatzi kantu daude, guztiak guk konposatutakoak. Kantu guztiak ezberdinak dira, baina soinu eta estilo aldetik lotura daukate. Hala, diskoa oso entzungarria dela uste dugu. Entzuleek ez dute behin eta berriz gauza bera entzuten daudela pentsatuko. Hori zen gure erronka.

**Diskoa zuen kabuz kaleratu duzue? Diskoetxeekin saiatu zarete?**
Diskoetxeekin harremanetan jarri ginen, baina, azkenean, egungo egoera ikusita, autoedizioaren bidea aukeratu genuen. Horrek diskoa merkeago saltzeko aukera eman digu. *Digipack*-ak salgai daude bost eurotan Arrasateko alde zaharreko tabernа gehienetan; Bergarako Etxagin, Oñatiko Akerren, Aretxabaletako Txikin eta Eskoriatzako Inkernun.

**Hasi zarete diskoaren aurkezpen kontzertuak prestatzen?**
Bai, bagabiltza kontzertu batzuk prestatzen. Dena den, orain baino gehiago, urtean zehar kontzertu asko ematea da asmoa, Igortz Iturbe hasi zaigu-eta manager lanetan. Martxoaren 26an diskoaren aurkezpen kontzertua egingo dugu Arrasateko 3 aretoan.

**Nolakoak zarete zuzenekoetan?**
Taula gainera igotzea da gehien gustatzen zaiguna, eta beti irteten gara dena ematera. Aitor *frontman* ona da eta publikoa asko animatzen du. Baina, batez ere, taldeak duen *feeling*-a azpimarratuko genuke.

**Hard rocka edo rock klasikoa egiten duzuela esaten badugu, eroso sentitzen zarete?**
Ez bata, ez bestea. Guk esango genuke bien nahasketa egiten dugula; alegia, hard rock klasikoa egiten dugu.



### Rockzale zahar eta jakin-mina duten gazteak...

...dira disko hau gehien gozatuko dutenak. Jukebox, Radio Wings eta Black Sheeps aurrekari onak dira, eta are hobea da talde hau.

Radio Wingsek hasitako bideari jarraituta, 70eko hamarkadako rocka du abiapuntu Arrasateko talde berriak. Led Zeppelin, Deep Purple eta Rainbow oso presente daude kantuen giroan, baina baita Love ere; eta tarteka Sex Museum ere gogora ekarri izan digute. Instrumentista ikaragarriak, *feeling* eta dikzio oneko ahotsa eta iraganeko espiritua barra-barra.

Iker Barandiaran.

**Badirudi zuen taldean denboran gero eta atzerago begiratzen duzuela estiloei dagokienez.**
1970eko hamarkadako rocka oinarri hartu izan dugu beti, baina oraingoan ikuspegia asko zabaldu dugu, eta disko honetan estilo eta garai ezberdinetako doinuak antzeman daitezke. Aurrera begiratzen ere badakigula erakutsi dugu!

**Taldea musikari beteranoek osatzen duzue. Jukebox, Black Sheep eta Radio Wings taldeetako esperientzien ostean, zer ikasi duzue beste talde horietan oraingo proiektuan jaso duzuena?**
Talde askotan ibilitakoak gara, eta, azken finean, proiektu bakoitzetik esperientzia jaso dugu. Proiektu honetan ikasitakoaz baliatu gara, eta esan dezakegu inoiz egin dugun lanik helduena egitea lortu dugula.

**Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?**
Asko ditugu; besteak beste, Led Zeppelin, Deep Purple, Motorhead eta Manolo Escobar [barre egiten dute]. Baina baditugu beste hainbat.

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxebizitza salgai Muntsaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua. Deitu 667-88 23 38 telefonora.

